

AIARALDEA *hemen*



ENVASESEKO EMAKUMEAK:
“Envasesen gizon askok uste zuten erretiroa hartzean guk baino askoz gehiago kobratuko zutela” 4-7 or.

JARE PRIETO:
“Pieza honekin nahi dudana da jendeak ikustea bizi izan ditudan biolentziak” 22-23 or.



Amurrioko Udalarekiko gatazkan bitartekaritza lanak egiteko eskaera luzatu dio Aiaraldea Komunikabideak Josune Irabien Jaurlaritzako euskara sustatzeko zuzendariari 2-3 or.

Bitartekaritza prozesua urriaren 31ra artekoa izatea aurreikusitako du Komunikabideak, “gatazka are gehiago ez larriagotzeko” eta “lehen bait lehen” aurre egiteko eskualdeko euskarazko hedabide bakarrak “egun bizi duen finantzaketa defizitari”.



ARAKALDO 8 Humberto Perea da Arakaldoko alkate
Jeltzaleari eman diote ardura Sara Hidalgo independintaren dimisioaren ostean

URDUÑA 10 Haragi transformaziorako Belardi zentroa martxan
Irailaren 21ean egin zuten urduñako hiltegiaren aurkezpen publikoa

KULTURA 26 Artziniegan abiatu dute Arte Harte zikloa
Goroldirik Ez antzerki piez ibiltariak eman dio hasiera zikooaren bigarren edizioari

KIROLA 28 Amurrioko Nazioarteko Krosak aitortza jaso du
ADOC elkarteak saria eman die antolatzaileei krosaren ibilbide oparoagaitik



“Egunak eta egunak eman ditut Urduñako mendatean kamera soinean harturik”

ENDIKA DIAZ - ARDE LA NIEBLA

erreportajea

Bitartekari izateko eskaera Josune Irabien Euskara Sustatzeko zuzendariari

Amurrioko Udalarekiko gatazkan bitartekaritza lanak egiteko eskaera luzatu dio Aiaraldea Komunikabideak Josune Irabien Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariari. Bitartekaritza prozesua urriaren 31ra artekoa izatea aurreikusi du komunikabideak, akordio batera iristeko eskua berriro ere luzatuz Amurrioko Udalari.



Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari berria da Josune Irabien Marigorta amurriarra. **Irekia**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aiaraldea Komunikabideak eskaera ofiziala tramitatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean, Euskara Sustatzeko zuzendari berriak bitartekari lanak bete ditzan Amurrioko Udalaren eta Komunikabidearen artean, Udalak alde bakarrez kendutako dirulaguntza-zen auzian.

Uda hasieran 1.700 herritar eta entitatek eskatu zioten Amurrioko Udalari “bi aldeen arteko bilera ahalbidetzea eta eskualdeko euskarazko komunikabide bakkarentzako dirulaguntza ahalik eta arinen berrezartzea”.

Ekainaren 21ean agerraldi herritar jendetsua egin zen Amurrioko Udaletxearen aurrean. Bertan, irailaren 21era arteko epea luzatu zitzaion Udalari gatazka konpontzeko urratsak emateko. Baina, tarte hori igarota, Amurrioko Udalak berriz egin dio uko komunikabidearekin biltzeari, eta ez du inolako beste urratsik eman.

Egoeraren larritasunaren aurrean, Aiaraldea Komunikabideak hilabeteko bitartekaritza prozesua irekitzea erabaki du, eta mediazio lan hori egiteko eskaera ofiziala luzatu dio Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari izendatu berria den Josune Irabien Marigortari.

Komunikabideak azaldu due-

2012

Euskarazko komunikabideak sustatzeko elkarlan akordioa sinatu zuten eskualdeko 9 udalek, talde politiko guztietako ordezkarien oniritziarekin.



2024

Elkarlan akordioa bertan behera uztea erabaki zuen Txerra Molinuevo buru duen Amurrioko Udal Gobernu Taldeak.

Maiatza

Atxikimendu kanpaina abiatu zuen Aiaraldea Komunikabideak, eta 1.700 herritar eta entitatek eskatu zioten Udalari egoera bideratzea.

erreportajea

nez, Irabienek Jaurlaritzan betetzen duen funtzioen artean kokatzen da “euskarazko hedabideak indartzeko eta sustatzeko ekimenak bultzatzea”. Gainera, Irabienek “ezin hobe” ezagutzen du Amurrioko errealitatea, 9 urtez izan delako bertako alkatea. Horrenbestez, urte hauetan guztietan “lehen eskutik” izan du “Aiaraldea Komunikabidearekiko elkarlanaldiaren berri”.

Horregatik guztiagatik uste du Aiaraldea Komunikabideak Josune Irabienek Marigorta “pertsona egokia” dela “bi aldeak entzun, eta mahaiaren bueltan adostasunak bilatzen laguntzeko”. Jaurlaritzari bidalitako eskaeran nabarmentzen dutenez, Aiaraldea Komunikabidearen eta Amurrioko Udalaren helburu partekatua da “euskararen biziberritzea”, eta ezinbestekotzat jotzen dute “tokiko instituzioen eta herritarren ehun sozialaren arteko lankidetzat”, aurrerapausoak eman ahal izateko hizkuntzaren normalizazioan.

Komunikabideak gogorarazi du Irabienek alkate zenean sinatu zela “euskarazko komunikabideak sustatzeko, laguntzeko eta finantzatzeko adostasun handiko elkarlan akordioa”. 2012an izan zen hori, eta eskualdeko bederatziz udalek egin zuten bat hitzarmenarekin. “Elkarlan bide ho-

Aiaraldea Komunikabideak uste du Josune Irabienek Marigorta pertsona egokia dela “bi aldeak entzun, eta mahaiaren bueltan adostasunak bilatzen laguntzeko”

rren emaitza izan da urte hauetan guztietan euskara biziberritzeko lanabes estrategikoa den komunikabidea asko eta ondo errotu dela eskualdean, eta hizkuntzaren biziberritzerako makulu ezinbestekoa bihurtu da milaka eta milaka herritarrentzat”, azaldu dute Jaurlaritzan tramitatutako eskaeran.

Nabarmendu dutenez, elkarlan-hitzarmen zabal hori da Amurrioko Udalak “alde bakarrean bertan behera uztea” erabaki duena urte honen hasieran. Komunikabideak apirilean jaso zuen erabaki horren berri. “Denbora tarte honetan etengabeak izan dira Udalarik gaia lantzeko eginiko bilera eskaerak, erabakiaren zergatien berri lehen eskutik izan eta egoera bideratzeko adostasunak bilatzeko”, azpimarratu dute.

Epea, urriaren 31ra arte

Bitartekaritza prozesua urriaren 31ra artekoa izatea aurreikusi du Aiaraldea Komunikabideak, “gatazka are gehiago ez larriagotzeko” eta “lehenbailehen” aurre egiteko euskara sustatzeko proiektuak egun bizi duen finantzaketa defizitari. Komunikabideko kideek uste dute hilabete epea nahikoa dela “bi aldeontzako akordio egoki bat” lortzeko, “borondatea izanez gero”.



Ezkerrean, iragan ekainaren 21ean Amurrioko eginiko agerraldi herritarra. Eskuman, Josune Irabienek Marigorta 2012an, Aiaraldea Komunikabidearekin bildu eta egoera bideratzeko. Aiaraldea.eus

Ekaina

Agerraldi herritar jendetsua egiten zuten Amurrioko Udaletxearen aurrean, eta bertan irailaren 21ra arte eman zioten Udalarik epea Aiaraldea Komunikabidearekin bildu eta egoera bideratzeko.



Iraila

Amurrioko Udalak berriz ere egin dio uko biltzeari. Horren aurrean, bitartekaritza prozesu bat abiatzea erabaki du komunikabideak, eta Josune Irabienek Marigortari eskatu dio mediazio lanak egitea.



elkarrizketa



“Envasesen gizon askok uste zuten erretiroa hartzean guk baino askoz gehiago kobratuko zutela, eta ez da horrela izan”

MANOLI HIERRO, NATIVIDAD GONZALEZ, CELIA ARETXAGA, ROSA MARIA SAEZ ETA PILI LOPEZ ENVASES ENPRESAKO LANGILEAK IZAN DIRA HAINBAT HAMARKADATAN ETA EUREN BIZITZA PROFESIONALAREN GORABEHERAK AZALDU DITUZTE KONPAINIA HORRETAN.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Nola hasi zineten Envases enpresan?

Natividad Gonzalez: Ni kasualitatez heldu nintzen. Nire gurasoek eman zuten nire izena eta ohartu nintzen ia-ia hasi nintzenean. Ni Bilbon ari nintzen lanean agintari batentzat eta 18 urte bete baino lehen eman zuten nire izena. Adin nagusia izan bezain pronto deitu zidaten.

Manoli Hierro: Nik izena eman nuen. Lan egin nahi nuen eta deitu ninduten, duela gutxienez 50 urte.

Rosa Maria Saez: Nire auzokide batek eman zuen nire izena.

Pili Lopez: Nik izena eman nuen. Ardu enpresan hasi nintzen lanean eta handik Envasesera.

Celia Aretxaga: Nik izena eman nuen eta hilabete batzuk igaro eta gero deitu ninduten. Ni sartu nintzen Natividad

eta Begoñarekin, Ibarretxe Lehendakariaren emaztearekin, alegia. Azkenengoak izan ginen.

N. G.: Gure lan bizitza gehiena han egin dugu. Gutxien lan egin duenak berrogei urte eman ditu enpresan.

Nolako zen garai horietan lantegi batean sartzea emakumea izanik?

P. L.: 365 langile ginen enpresan eta 200, gutxi gorabehera, emakumezkoak ginen.

M. H.: %85 emakumeak ginen, baina ofizialak gizonzkoak.

N. G.: Guk egiten genuen eskuko lan guztia eta gizonzkoak ziren ofizialak.

R. M. S.: Ezberdintasunak gizonzkoen eta emakumezkoen artean oso agerikoak ziren. Adibidez, sartu nintzenean aparteko ordainsaria eman zuten eta gizonak 15.000 pezta jaso zituzten eta emakumeok, aldiz, 8.000.

P. L.: Emakume batzuek 3.500 pezeta jaso genituen.

N. G.: Gizonzkoek askoz errazagoa zuten gora egitea enpresan.

Hala ere, garai horretan ez zenuten txarto ikusten egoera, ezta?

N. G.: Ez ginen oso kontziente benetan nola egin behar ziren gauzak.

R. M. S.: Eta alde batetik ondo zegoen. Izan ere, Envases zen emakumezkoak kontratatzen zituen ia enpresa bakarra. Ardu ere zegoen, baina itxi zuten eta LIPEk ere egiten zuten. Baten bat Envases utzi eta LIPera joan zen. Dena den, amak izan ginenean, ikuspegia aldatuz joan zen. Guretzat garrantzitsua zen gure lanpostua izatea.

Aipatu duzue amatasuna, nolako zen amatasuna lanean hasi zinetenean?

elkarrizketa

N. G.: Erditu arte lanean egoten zinen. Adibidez, nik goizeko txanda amaitu eta gero urak bota nituen, 15:00ak aldera.

R. M. S.: Dena den, ohikoena zen ezkondu ostean ez itzultzea lanera. Emakumezkoek ematen zitzaizkien ezkon-saria eta etxean geratzen ziren, bazutelako nork mantendu, senarrak, alegia.

P. L.: 1978an eta 1979an hasi ziren emakumezkoak lanean geratzen. Hiruzpalau emakume izan ziren lehenengoak Envasen eta gero ni izan nintzen.

R. M. S.: Azaldu beharra dago ezkon-saria zela estatuak ordaintzen zuen dirua. Hilabeteko soldata lan egindako urte bakoitzeko, hain zuzen.

P. L.: Frankismo garaiko neurri bat zen.

Enpresak ondo hartu zuen zuek geratzea?

P. L.: Bai, enpresa pozik zegoen. Gu oso arduratsuak ginen eta ez genituen baja ugari hartzen.

N. G.: Enpresarentzat positiboa zen. Trebatutako jende ugari mantentzen zen postuan eta ez zuten langileak trebatzeko beharrik. Gu joan garenetik eta apur bat lehenagotik politika aldatu da. Gu sartzen ginen eta bizitza osoan geratzeko aukera genuen. Orain langileak sartzen eta irteten dira. Horrela lantegiek ez dute funtzionatzeko aukerarik. Gurekin hobeto funtzionatzen zuen.

R. M. S.: Gure artean ere konplizitate zegoen, elkar babesten genuen. Jatorri eta bizimodu ezberdineko emakumeak batu ginen: batzuk baserrikoak, beste batzuk herri txikiak, kanpokoak... Guretzat bizitza profesionala garatzeko aukera zen eta gizezkoek ez zuten ulertzen ez genuela betirako onartuko gu zapaltzea. Uneren batean adierazi genuen nahiko zela eta soldata ezberdintasunarekin amaitu behar zela.

Gizezko asko sartzen ziren lanera eta denbora gutxian gure buruzagiak ziren, nahiz eta prestatuta ez egon. Ikas-

“Duela 40 urte Envasen enpresan langile gehienak emakumezkoak ginen, baina matxismoa zen nagusi”

ketak bazituzten, baina ez esperientzia, eta eskarmentua guretzat oso garrantzitsua zen.

Noiz hasi ziren aldaketak?

M. H.: Motelak izan ziren, zuzendari berriarekin heldu ziren, baina ez berehala. 1990eko hamarkadara arte ez genuen nabaritu.

R. M. S.: Jose Antonio Naberan sartu zenean, konturatu zen esperientzia zuen jendeak gaitasuna handia zuela. Europar Batasuneko dirulaguntzak baliatu zituen trebakuntza eskaintzeko.

N. G.: Alegia, batzuk joan ziren Lanbide Heziketara ikastera. Informatika, erizaintza, euskara... Ikasteko aukera eman zuen. Dena den, nik eszedentzia eskatu behar izan nuen erizaintza praktikak egiteko eta zuzendariari ez zion grazia handirik egin. Praktikak enpresan bertan egiteko esan zidan.

P. L.: Naberanek nahi zuen lana ateratzen zion jendea geratzea bere postuan.

N. G.: Zuzendaria aldatu zuten eta zuzendariak uste zuen aldaketak egin behar zirela eta emakumezkoak izan behar genuela gaitasuna gure tresnen kutzarekin dena egiteko. Lehen dena eskuko lana zen. Orain makinak erabiltzen dira eta ofiziala izan behar zara makinak kudeatzeko.

M. H.: Zuzendariaren apustua izan zen gu trebatzen hastea.

P. L.: Baina horretarako hogeit hamar urte igaro behar izan ziren.

R. M. S.: Dena den, argitu behar da enpresa oso paternalista izan dela eta, trebatu arren, oso zaila zela emakumezkoak buruzagi edo arduradun postuetara heltzea.

M. H.: Hori oraindik gertatzen da.

Zuen lankideekin ere talkak izan dituzue?

R. M. S.: Bai. Gogoratzen dut garai bat zeinean enpresak



elkarrizketa

azaldu zuen, langile kopuru batek joateko hautua hartuz gero, bazegoela diru bat geratzen ginenontzat. Orduan azaldu zen osasungintza pribatuko aseguru kontratatzea eta gizonezkoek esan zuten aseguru horrek babestu behar zituela bere familiako kide guztiak eta, gure kasuan, bakarrik gu, hau da, gure senar eta seme-alabak ez. Guk erantzun genuen ezetz eta proposatu genuen erretiro funtsa ezartzea. Horren bitartez, 60 urteak betetzean, diru bat eskuratuko genuen eta Gabonetako pakete bat, baina sari bera guztiontzat, ezberdintasunik gabe.

Ezberdintasun horien adibidea ere izan zen seme-alaben eskolako dirulaguntza. Gizonezkoek soilik kobratzen zutenean, gastuen %30 ordaintzen zuten enpresak. Emakumezkoek ere kobratzen hasi behar ginenean, kopuru finko bat baino ez zuten ordaindu.

Gizon gazteak sartu zirenean gehiago babestu gintuzten, baina hasieran matxismoa nagusi zen enpresan. Adibidez, uste zuten garbiketa gure ardura zela. Gure lanpostua ez zen garbitzailea, eurek ez zuten inoiz garbitzen zikindutakoa.

“Uste zuten garbiketa gure ardura zela. Gure lanpostua ez zen garbitzailearena, eurek ez zuten inoiz garbitzen zikindutakoa”

N. G.: Mutil gazteak sartu arte nik ez ditut gizonezkoak garbitzen ikusi. Alegia, batzuek lan egiten zuten gurasoenkin eta aitek esaten zieten ea zergatik garbitzen zuten.

R. M. S.: Zentzu horretan enpresari aitortu behar zaio lan egindako egun guztiak kotizatu dituela eta, gure soldatapeko langile bizitza amaitu denean, gizonezkoekin berdindu garela. Askok uste zuten guk baino soldata hobearekin amaituko zutela. Hori egia da.

P. L.: Hau irakurtzen dutenean jarriko dira gozo!

N. G.: Eurek badakite.

P. L.: Baina ez dute nahiko jendeak jakitea.

M. H.: Hori beste kontu bat da, jakin behar du jendeak. Eurek kobratu dute gehiago eta uste zuten gehiago kobratuko zutela, baina amaitu dugu eta soldata bera izan dugu erretiroan.

R. M. S.: Oro har, Naberanen kudeaketa partenalistari aitortu behar zaio pertsonalki kezka adierazi digula gure guraso, senar edo seme-alabengatik eta zentzu horretan ez dela arazorik egon. Historikoki familia arazoekin eta arazo pertsonalekin portaera ona izan du enpresak.

Edonola ere, Naberanek erretiroa hartuta, enpresa kultura aldatu da, ezta?

N. G.: Erabat aldatu da.

M. H.: Ez dauka zerikusirik.

N. G.: Esquin muturrarekin gertatzen denarekin bezala,



hainbat aurrerapen atzera bota nahi dituzte. Eskubideak kendu nahi dituzte. Nik nabaritzen nuen. Gainera, kudeatzaile berriek ez daukate langileekiko gertutasunik. Naberanek guztion seme-alaben izenak zekizkien, adibidez.

M. H.: Ugazaba ezin da zure laguna izan. Hori horrela da, baina egungoek ez dute harremanik nahi.

Urte luzez ez zenuten sindikatu ordezkariarik izan.

M. H. O.: Ez dut gogoratzen ezta zenbat ere.

R. M. S.: Hamabi urte!!!

N. G.: Lan hitzarmena zegoen moduan geratu zen. Mobilizazioekin hasi arte.

Zein izan zen enpresaren erantzuna?

R. M. S.: Ez zuten batere gogoko izan antolatzen hasia.

N. G.: Erantzuna oso txarra izan zen. Zenbaiten aurka neurriak hartu zituzten. Greba egin genuen eta batzuek ordaindu zuten.

M. H.: Gainera, iruzur egin ziguten. Engainatu ziguten. Esan ziguten dena konponduta zegoela eta ez zen horrela izan.

R. M. S.: Lauzpabost langileren artean engainatu gintuzten. Eurek pentsatuta zuten lanera joatea eta hasi ziren jendeari esaten banaka dena konponduta zegoela eta engainatu gintuzten. Gehiengoak jarraitu nahi zuten grebarekin. Inoiz ez dugu jakingo gehiago lortzeko aukera izan genuen edo ez.

Hala ere, ematen zuten hanka sartu genuela eta gero eskubide horiek mantendu dira eta hobetu dira.

P. L.: Hobe esanda, lorpen batzuk mantendu dituzte eta beste batzuk lortzeko edo ez kentzeko borrokan ari dira.

N. G.: Sindikatuak sartu ziren lehenengo aldiz garai horretan eta bakoitzak bere lan egiteko ereduaren zuzen, baita guk ere.

Ez ginen ados jarri eta nahi genuena lortu gabe itzuli ginen lanera. Nik uste dut askoz gehiago eskuratzeko aukera genuela.

Zuek izandako esperientziaren arabera, nola aldatu da enpresa?

R. M. S.: Asko modernizatu da.

M. H.: Egia da aurrera egiteko ez zutela beste aukerarik.

elkarrizketa



N. G.: Jende trebatua sartu dute eta dena automatizatu dago, makinak erabiltzen jakinez gero, erraza da.

R. M. S.: Eskualdeko enpresarik garrantzitsuenetakoa da, nahiz eta beste batzuek ez bezala, publizitate handirik ez egin. Langileak ondo bizi dira, gutxi gorabehera.

P. L.: Arazo larriena da langileak asko aldatzen dituztela.

R. M. S.: Aldi Baterako Enpresak erabat sartuta daude.

N. G.: Trebatzen dituzte langileak hainbat urtez eta bat-batean kaleratzen dituzte.

M. H.: Kontratu luzeak egin ordez, sei hilero jende berria ekartzen dute.

R. M. S.: Askoz prekariagoa da orain enpresa, eta jendea ez da ausartzen ahotsa altxatzen, guk egiten genuen moduan.

N. G.: Alegia, bi kaleratze egon dira aurten.

Zuek nola baloratzen duzue zuen lan bizitza Envasesen?

R. M. S.: Pertsonalki oso ondo. Guztiak batera trebatu gara, antzeko adina dugulako eta bakoitzak bere egoerarekin —bikotea bai ala ez, seme-alabak bai ala ez, gurasoak... — elkar babestu dugu. Une txarrak igaro ditugu, baina harreman ona izan dugu gure artean.

P. L.: Azken bi edo hiru urteak gogorak izan dira. Jende ezezagunarekin egin dugu lan eta egoera ez zen bera. Gainera, jende berriak ez zuen ulertzen gure jokaera, elkar babestea.

N. G.: Ez gintuzten baloratzen, babes hori ez zegoen. Prekarietatearekin jende gazteak ez zuen laguntzarik nahi. Beldur ziren, ez zuten nahi arduradun batek ikustea guk irakasten geniola, ematen zuelako eurek ez zekitela bere lana. Oihaneko legea nagusitu zen. Salbuespenak egon dira, adibidez, Urduñako neska batzuk. Aldi Baterako Enpresen bitartez heldu ziren, baina herri berekoak zirenez...

R. M. S.: Dena den, hori azken urteak izan ziren. Orain, gure lan bizitza behin amaituta, ikusten dugu gure arteko loturak eta baturak jarraitzen dutela, bizipen asko izan ditugulako: lan orduak, bizitza, arazo profesional, pertsonal eta familiakoak... Horri esker badakigu bakoitzak zer igaro duen.

M. H.: Batasun eta laguntasun handia egon da gure artean. Orokorra izan da. Gaueko txandan, 25 langile edo batzen ginen, familia giroa zen nagusi.

P. L.: Aipatu beharra dago gero sartu ziren gizonezkoak ondo portatzen zirela. Hala ere, guk jende guztia babestu dugu eta maitasuna adierazi diegu. Gero faltan bota gaituzte.

R. M. S.: Lantegira sartu den jende berriak ez du topatu bestelako enpresa handietan dagoen giroa. Enpresa horietan zenbaki bat zara, gu saiatu gara parte har dezaten: urtebetetzeak, hitzorduak... Horrek ikusarazten die ez direla zenbaki hutsa.

P. L.: Azken urteak gogorak izan dira guretzat.

N. G.: Erabat. Ni izan naiz azkena erretiroa hartzen eta nire burua beste enpresa batean ikusten nuen. Ez zuen zerikusirik.

Dena ezberdina zen, arauak eta guzti.

C. A.: Niri gertatu zitzaidan. Baten batek galdetu zidan egunen batean zergatik nengoen goibel, eta erantzun nion ez nuela inor ezagutzen.

P. L.: Gure artean genituen pena guztiak aipatzen genituen eta begiratzearekin soilik bagenekien nola geunden. Agian egun batean batek ez zuen hitz egiteko gogorik eta ikustearekin soilik bagenekien.

herriz herri

Arakaldo

Humberto Perea jeltzalea da Arakaldoko alkatea uztailetik



Humberto Perea alkate berria da uztailetik. EAJ

Testua
Aitor Aspuru Saez

Sonia Hidalgo Arakaldoko Taldeko alkateak ekainean dimisioa aurkeztu eta gero, Humberto Perea jeltzalearen esku geratu da eskumen hori. Perea EAJko zinegotzi bakarra da Udalean, baina Arakaldoko Taldeko zinegotziek gobernuburu izateari uko egin ondoren, jeltzaleak onartu du alkate bilakatzea, besteen eskaerari erantzunda.

Ez da ohiko egoera, baina Humberto Perea adierazi du berak alkatetza hartzeari baiezkua eman diola erakunde eta politika erantzukizunagatik. "Udalak lanean jarraitu behar du politikoki eta administratiboki eta hori errazteko prest nago, Arakaldoko Taldeko kideak eta herritarrak laguntze-

Arakaldoko Taldea zerrenda independenteak gehiengoa badu ere, Humberto Perea eman diote ardura, bere zinegotziek ez baitzuten bere gain hartu nahi

ko", azaldu du Perea. Jeltzalearen aburuz, nahiko ohikoa da herri txikietan zailtasunak egotea bizilagunek parte har dezaten politikan eta udalgintzan: "Herri askotan gertatzen da. Hori demokraziarentzat arriskua da, ez baita lortzen herritarrek eskura dituzten erabakitze-ko tresnak baliatzea. Suposatzen dut jendeak ikusten duela desabantailak handiagoak direla abantailak baino".

Eskarmentua alkatetzan

Arakaldoko alkatetza ez da bere lehen esperientzia gobernuburu gisa Humberto Pereaarentzat. Izan ere, Perea Zeberio alkate izan da bi legegalditan, 2003tik 2011ra bitartean. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundian ardurak izan ditu eta baita Bizkaiko Buru Batzarrean ere.

Okondo

Kuadrillen elkarlana nabarmendu dute abuztuan ospatu ziren Okondoko jaietan



Jaien balorazio bilera egin zuten iragan astean. Aiaraldea.eus

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Abuztuan ospatu zituzten Okondoko jaiak. Hain zuzen ere, abuztuaren 8an eta 9an sanromanak eta abuztuaren 18tik 25era sanbartolomeak. Eneritz Alonso Okondoko Udaleko zinegotziak balorazio positiboa egin eta kuadrillen lana nabarmendu du: "Jaiak oso ondo joan dira, jai herrikoiak dira, eta ia hiru egun igarotzen ditugu kalean goizetik gauera, lehiaketa gastronomikoen hasi eta kontzertuetara heldu arte. Ume, gazte zein heldu. Gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari den kuadrillen elkarlanari esker, Udalak ekitaldiak banatu eta antolatu ahal izan ditu, guztiok gozatzeko aukera izan dezagun".

Parte hartzeari dagokionez, zinegotziak adierazi du jende gehiago ikusten dela urterik urtera, eta hori lehiaketa gastronomikoetan nabaritzen dela gehienbat. Hamaika ekintza prestatu zituzten abuztuan jaietzeko, baina beti dago baten bat gustukoena dena.

"Adin eta gustu guztietarako jarduerak daudenez, zaila da bat ba-

karrikaipatzea, baina nikuste dut mozorrazteko momentua ilusioz itxaroten duela herri osoak, egindako lana ikusteko, baita lehiaketa gastronomikoak ere. Plazera da plaza hain beteta ikustea", azaldu du Alonsok.

Eta azpimarratzekoa, nola ez, "gero eta protagonismo eta parte-hartze handiagoa hartzen ari diren kuadrillak. Plazara begiratzea eta bere bereizgarriekin ikustea atsegina da, kamisetak (kuadrilla bakoitzak kolore batekoa du) eta euren arteko giro ona ikustea".

Irabiengo jaiak ate-joka

Heltze ardira Okondoko Irabiengo jaiak. Urriaren 4-5-6ko asteburuan izango dira, eta dena prest dute dagoeneko. Zinegotziak aurreratu duenez, "Paellak, tortilla, marmitakoa, txikienez zako jolasak, igela, mozorroak, odolostea, bingoa... egongo dira. Guztiok egiten ditugun festak, guztiok gozatzeko".

"Lagunarteko jaiak" direla adierazi du, eta "guztiok jartzen dugure aldetik jaiak antolatze eta dena ondo ateratzeko". Desio bat baino ez, "eguraldia lagun izatea".

Aiara

Aiara eraiki nahi duten beste zentral fotovoltaiko baten kontrako alegazioak aurkeztu ditu Udalak



Hainbat azpiegitura berriztagarri eraikitzeke planak jaso ditu udalerrriak azken urtean. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako udalerrriak jarraitzen du energia azpiegituren proiektuak metatzen bere gain. Azken urteetan Ferosca I parke eolikoa, Solariako goi-tentsioko linea, energia berriztagarria biltegitzeko baterien instalazioa Markixanan eta Las Americas 20 zentral eolikoa bere lurraldean eraikitzeke urratsak egin dituzte erakunde publikoek zein pribatuek. Zerrenda luze horri gehitu behar zaio orain Igebela Solar azpiegitura fotovoltaikoa, zeina Zarabeko gainera gertu egongo litzatekeen, Amurrio eta Olabezarreko lur-sailak hartuta.

Proiektua Ventaja Solar 8 SL enpresak sustatu du eta 3,44 MW ekoizteko instalazioa izango litzateke. Zazpi lursail okupatuko lituzke; sei Amurrio eta bakarra Aiara, 3,83 hektarea guztira.

Dokumentazioa abuztuan

Aiarako Udalaren lehenengo salaketa izan da ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluzio txostena abuztuaren 14an heldu zela udallexera. Hau da, zubi baten bezperan eta hainbat udal langileren opo-

rren erdian. Horren aurrean, tokiko erakundeak luzapena eskatu zuen, alegazioak ganoraz lantzeko, baina Eusko Jaurlaritzak uko egin zion eskaerari. Ondorioz, Udalak ez du denborarik izan informazioa herritarren artean zabaltzeko, berak nahi zuen moduan. Dena den, tarte urrian izan bada ere, bederatzia Administrazio Batzarrek ere alegazioak sinatzea lortu dute. Gauzak horrela, Aiara Udalkargudiatu du helgitea prestatu duelako herrira helitzen ari direlako proiektuakinola-

ko plangintza orokorrik gabe eta egitasmo guztien irudia beharko luketela beharrak eta babesteko inguruak analizatzeko. Udalaren aburuz, Energia Berriztagarrien Sektorre Plana egotea da gutxieneko baldintza horrelako erabakiak hartzeko eta, momentuz, ez dago esparru hori arautuko duen dokumenturik.

Are gehiago, Udalak erantsi du planaren zirriborroan ez dagoela aurreikusita Olabezarreko eremu horretan azpiegitura fotovoltaikoak eraikitzea.

Orozkoko

Albitzuko bidean erori diren harrien jatorrizko arazoa aztertzen ari da Orozkoko Udala, behin betiko konpontzeko

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Irailaren 19an Albitzuko bidean harri erraldoiak erori ziren, eta trafikoa etenarazi zuten. Hori dela eta, Orozkoko Udalak premiaz bidali zuen langile brigada harkaitz handienak kentzeko, ibilgailuen trafikoa ahalbidetzeko. Bide erdian zeudenak erretiratu zituzten eta harri handi bat bazter batean geratu zen.

Lehen arazo hori konponduta, Udala aztertzen ari da zein izan den gertakariaren muina. "Harkaitzen

jausia gertatu den lekua ez da publikoa, baina uste dugu Udalak erantzun behar diola. Izan ere, harrien tamaina ez da txikia eta istripurik ez zen gertatu, baina gertatuz gero, larria izango litzatekeen", azaldu du Aitor Iza alkateak. Gauzak horrela, tokiko erakundeak teknikariak eta geologo bat bidali zituen argitzeko zuhaitz baten sustraiek edo beste zerbaitek eragin duen harrien mugimendua. "Arazoaren sorburua topatzen dugunean, obren proiektua kontratatu eta egikaritutako dugu", aurreratu du alkateak.

ARTE HARTZE
ZIKLOA 2024
SORMENA BILUZTUZ

KULTUR
FAKTORIA

Irailak 29, igandea
18:00 · Faktorian

RRR

MAIALEN
LUJANBIO

Performancea

/r/ hots zehazgabea garaia zehazgabeetarako.

/r/ soinu dardarkaria garai dardaratuetarako.

Sarrerak salgai
www.faktoria.eus

BAZKIDEEK 8€ | EZ-BAZKIDEEK 10€
LANGABEEK/IKASLEEK 5€

LAGUNTZAILEAK



BABESLEA

araba álava
foru aldundia diputación foral

QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz



ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien REMOVE PLANARI buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

herriz herri

Aiaraldea

Tubacexek Arabiar Emirerrietako filialaren kapitalaren %51 saldu du

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ekonomiaren esparruan lanean ari diren zenbait hedabide jakinaz, Tubacexek NTS Amega Global enpresaren kapitalaren %51 saldu duela. Konpainia hori multinazionalaren filiala da Arabiar Emirerrietan eta, antza, Abu Dhabi National Oil Companyk (ADNOC) erosi du. Dirudienez, operazioa Alpha Dhabi Holding funtsaren bitartez egikaritu dute. Funts hori NTS Amega Globalen sartu zen iaz.

Momentuz, ez dago informaziorik salmentaren prezioari buruz, baina gogoratu beharra dago NTS Amega Globalek Arabiar Emirerrietan ezezik, beste sei herrialdeetan ere dituela lantegiak, Norvegian, Ameriketako Estatu Batuetan edota Kanadan, besteak beste.

Argitu gabeko beste puntu bat da nola bateratuko den operazio hau maitezean Mubadala Investment Companyri egindako salmentarekin. Salmenta horretan, Abu Dhabi eraikiko duten lantegiaren %49 erosi zuen Arabiar Emirerri Batuko

funts subiranoak, 138 milioi euroren truke. Tubacexek, antza, azpimarratu du erabaki horiek enpresako 2027 urterako planarekin lotuta daudela. Estrategia horren azken helburua da 1.200 eta 1.400 milioi euro arteko fakturazioak lortzea, eta horretarako bazkideen bila aritu dira.

Tubacexeko zuzendaritzak azaldu zuen uztailean, bere ustez, Abu Dhabiko lantegiak eta kontratuak lan gehiago erakarriko dutela Aiaraldera, baina enpresa batzordeak zuhurtziaz hartu du han eraikitzen ari diren lantegiaren proiektua.

Encina Castresanak Aiarako Kuadrillako presidentea izateari utzi dio



Iaz hautatu zuten Castresana lehendakari, bigarrenkoz. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

EAJk adierazi du Encina Castresanak Aiarako Kuadrillaren presidentetzari uko egin diola. Hona hau azaldu du alderdiak: "Erabakia arrazoi pertsonal eta politikoengatik hartu da; izan ere, bere egungo egoerak dedikazio handiagoa eskatzen dio Artziniegako Udaleko oposizioko alderdi nagusiaren (EAJ-PNV) bozeramaile gisa dituen ardurei eta Arabako Batzar Nagusietan prokuradore gisa betetzen dituen lanei. Azken orga-

no horretan, Castresana Lehendakaritza Batzordeko lehendakaria da, eta bokala Euskara, Berdintasuna eta Gobernantza, Gizarte Politikak, Bateriaezintasunak eta Barne Araubide eta Erregelamenduko batzordeetan". Castresana, irakasle eta logopeda diplomatua, bost urtez izan da Aiarako Kuadrillako presidentea eta eskutitza bidali die erakunde horretako ordezkariari eskertzeko bi legealdietan egindako elkarlana. EAJk ere esker-erak eman dizkio artziniegarrari eta azpimarratu du pandemia garaia kudeatzea egokitu zitzaioela.

Urduña

Belardi haragi eraldaketarako zentroaren inaugurazioa; jendez eta omenaldiz gainezka



Belardi haragi eraldaketarako zentroaren herri inaugurazioa egin zuten larunbatean. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ordezkarientzako inaugurazioa egin ostean, larunbatean giro herrikoian aurkeztu zuten Belardi haragi eraldaketarako zentroa, zeinak hiltegia eta hainbat zerbitzu biltzen dituen. Inaugurazio ekitaldia bera omenaldiz beteta egon zen. Aitor Junguitu abeltzainari makila eman diote, bere aitak (zendu zena) egindako ekarpenagatik eta ezustean Mikel Kormenzana bera go-

raipatu zuten, proiektua gauzatzeko egindako lan izugarriagatik. Izan ere, Belardi gauzatzeko lanak hogeitau urte baino gehiago iraundu, lege eta arau aldaketak barne. Urduñako hiltziko azken langileak ere aipatu zituzten, belaunaldien arteko transmisioa eta garrantzia irudikatuz. Horren guztiaren ostean, haragiaren eraldaketarako prozesua nola bideratzen den argitu zuten.

Azkenik, eta Zapalan elkarteak boluntarioei esker, tokiko produktuekin prestatutako mokaduak es-

kaini zituzten. Izan ere, Belardi egitasmoa ez da hiltegi hutsa, toki-ekoizle eta abeltzainei erraztasunak ematea du helburu, kate handien mendekotasuna mugatzeko, gertuko merkatuak sustatzeko eta ahalik eta askatasun gehien eskuratzeko. Halaber, irizpide sozial sendoak ditu ekimenak eta, adibidez, Zapalan elkarteak, zeinak egoera zaurgarrian dauden lagunekin lan egiten duen, trebakuntza ikastaroak eskainiko ditu Belardin, pertsonen lan merkaturatzea ahalbidetzeko.

Ikasturte bete ekintza eskualdeko emakumeen jabekuntzarako, Laia Aiaraldearen eskutik

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laia Aiaraldearen 2024/2025 jarduera programa aurkeztu zuten iragan astean Laudioke Lezeaga Aretoan. Bertan izan ziren Laudioke, Amurrioko, Okondoko, Aiarako, Orozkoko eta Urduñako udal ordezkariak, berdintasun teknikariak eta Aiarako Kuadrillako lehendakaria. Joana del Hoyok ere parte hartu du aurkezpen ekitaldian, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendariak. Del Hoyok balioan jarrizuen Laia Jabekuntza Eskolak Arabako emakumeen ahalduntzerako azken urteetan egindako ibilbide oparoa eta "sortutako sare sendoa". Bide horretan, udalen, eragile sozialen eta mugimendu feministaren inplikazioa esker-

tu zuten Foru Aldundiko ordezkariak. Aurrerantzean ere helburu berdinei helduko die Laiak: ehundutako sarea indartzea eta herritar guztiak berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren kontrako eragile aktibo bilakatzea.

Aiaraldeko emakumeen berdintasunerako eta jabekuntzarako eskolaren zortzigarren edizioa izango da aurtengoa. Dozenaka ekintza prestatu dituzte: tailerrak, zineforumak, hitzaldiak, topaketak, irakurle klubak, erakusketak, brikolaje eta mekanika ikastaroak... Sareetako indarkeria matxistari eta honen aurka borrokatzeko tresnei ere eskainiko de tartea egitarau zabalean. Datozen asteetan jasoko dute Aiaraldeko herritarrek programazioa aletzen duen liburuxka, etxeko postontzian.

Laudio

Jose Luis Navarro hil da, ETako militante ohia, PSE-EEko kidea eta Kofradiako berritzailea

Jose Luis Navarro Laudioko Herrien Jaian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Jose Luis Navarro audioarrazenduzen irailaren 15ean. Gaixorik bazegoen ere, ezustean gertatu da heriotza. Jende askorentzat Navarro San Roke Kofradiako ordezkari nagusienetakoa izan da, baina bere ibilbide publikoa nabarmen luzea da.

Izan ere, Navarroken izen lehen aldiz egin zen publiko ETako militantea izateagatik. ETA Militar eta ETA Politico Militar erakundeen zatiketa baino askoz lehenago aritu zen bertan, Frankismo garaian. Dirudenez, talde armatuaren ekintza oso entzutetsuan parte hartu zuen modu batean edo bestean, eta Jose Miguel Beñaran Ordeñana Argalaren kide estua izan zen. Laguntzat zuen audioarrak Argala, baita Txomin Iturbe ETA Militarreko beste zuzendari historikoa edota Josu Urrutikoetxea, zeinak Navarro bisitatzen zuten Iparralden egon zenean bizitzen.

ETAn izandako militantziaren ondorioz, erbestera jo behar izan

zuen eta horrek Iparraldera eta Belgikara eraman zuen. Dena den, talde armatutik urruntzen joan zen denborarekin eta Franco hil ondoren Laudioa itzuli zen. Bere bilakaera politikoak PCera, Euskadiko Ezkerrara eta PSE-EEra eraman zuen (egun PSE-EEko kidea zen). Gesto Por La Paz en ere aritu zen.

Sindikalismoan urteak eman zituen, CCOOn. Aceros de Llodio enpresaren itxierak bete-betean harrrapatu zuen eta erretiroa hartu eta gero ere militatu zuen amiantoaren kontrako epaiketetan parte hartzen.

Azken urteetan Laudion San Roke Kofradiaren irudi publikoa izan zen, maiordomoa izan baitzen 2009tik 2023ra. Emakumeen parte hartzea arautu behar izan zenean abiatu zen bere ekarpen bizia kofradian. Berak gidatu zuen, nolabait, prozesua emakumeek abuztuko bazkarian parte har zezaten mahaian jaten (eta ez zerbitzatzen soilik) eta Kofradiaren irudia berri-tzen lagundu zuen, jarduera kultural ugari antolatuta (liburuen argitalpenak edota erakusketak).

Laudioko elkartegintzan ere aktiboa izan zen, Santa Luzia Abesbatzan edota SOS Laudioko Lamuzar Parkean, eta Franckingaren kontrako mugimenduan ere interesa agertu zuen.

Uda honetan Espainiako estatuko zentroek egiten duten jaian omendu zuten eta hitza hartu zuen bertan. Politika eta balio aurrerakoiak oso presente izan zituen hiztarte horretan.

Ermualdeko Kumeak jatetxeak ateak itxiko ditu, eta kudeatzaile berria bilatzeari ekingo diote

Udalarena da taberna-jatetxea barne hartzen dituen eraikina. **Laudio Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Azaroaren 10ean itxiko ditu ateak Ermualdeko Kumeak taberna-jatetxeak. Hala adierazi dute kudeatzaileek sare sozialen bidez. "Benetako plazera izan da, gure bezeroak hamarrekokoak izan zaretelako", nabarmendu dute ostalariek.

Gauzak hala, Ermualdeko Etxerako kudeatzaile berria bilatzeari ekin beharko dio Udalak. Izan ere, tokiko erakundearena da eraikina, eta 2020tik zeramatzen egungo

kudeatzaileek bertan lanean. Berez, hamar urtez luzatu zezaketen kontratua gehienez, baina lehenago amaitzea erabaki dute.

Ez zen esleipen erraza izan. 2019ko abenduan atera zuten lehen lehiaketa publikoa, baina bertan behera utzi zuten, aurkeztu ziren pertsonak ez zituztelako eskatutako baldintza guztiak betetzen. Gauzak hala, baldintza horiek malgutu behar izan zituen tokiko erakundeak, eta horrela lortu zuen egungo kudeatzaileak proiektuan sartzea, 2020ko martxoan.

ORAIN

Entzumen-azterketa DOAN

LUYANDO ENTZUMEN ZENTROA
Amurrio. Elexondo, 1. T. 945 892 422
Laudio. Batzalarin Kalea, 3. T. 944 042 286
Urduña. Kale Barria, 5. T. 945 384 499

Aural
CENTROS AUDITIVOS
Premium Partner

eta probatu audifonoak 15 egunez DOAN

argazki erreportajea

Herritarren inplikazioari eta eguraldi eguzkitsuari esker, Antzinako Azokaren edizio arrakastatsuz gozatzeko aukera izan zuten irailaren 14an Artziniegara bertaratu ziren ehunka bisitariak.

Erdi Arora bidaiatu du Artziniegak, Antzinako Azokaren XXV. edizioan



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Mendeetan atzera egin zuten irailaren 14an Artziniegako kaleek, Antzinako Azokaren XXV. edizioan. 1998an Artea Etnografia Elkarteak abiatutako ekimenak Erdi Aroko giroa ekarri zuen beste urte batez hiribildura. Goizean goizetik

kale-animazioa, artisautza postuak eta antzinako ofizio eta ohituren erakustaldiak izan ziren protagonista Artziniegan, eta arratsaldeko azken ordura arte luzatu zen festa.

"Herritik eta herriarentzat"

Giro eguzkitsua lagun, bisitari ugari erakarri zituen hitzorduak. Azokaren antolakuntzak Artzinie-

gako herritarren parte hartzea goraipatu zuen. Izan ere, auzokideen inplikazioa da egunaren osagai nagusia. Mozorroak soinean, Erdi Aroko motiboekin apaindu zituzten etxeetako fatxadak, tabernak eta negoziak. "Zortea da herritik jaiotako ekimena izanik herritarrek hainbeste parte hartzea", nabarmendu zuen Unai Gotxik, antolakuntzako kideak.



argazki erreportajea



ekarri zuk ere argindar
faktura goienerera

**berriztagarria
bertakoa
euskalduna
kooperatiboa**



goiener



📍 Konstituzio plaza 1. Gasteiz
✉ goiener@goiener.eus
🌐 www.goiener.eus

945 157 444
900 816 365

elkarrizketa



“Nahasmendua ezagutzera eman nahi dugu, ikastetxeetan, gurasoei, ikasleei, irakasleei...”

ARRETA-DEFIZITAREN ETA HIPERAKTIBITATEAREN NAHASMENDUA DUTE. **SHEILA LOPEZ, ANGELICA TRIMIÑO, ANA BELEN MARTIN** ETA **BEGOÑA TOME**ren SEME-ALABEK. HORI DELA ETA, ALANIDAH ELKARTEA SORTU DUTE.



Testua **Maider Ramirez Martin**

Nola sortu zen Alanidah elkarte sortzeko ideia? Eta nola erabaki zenuten urratsa ematea?

Sheila López: Gutako guztion semeek dute arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN), eta badaude beste nahasmendu batzuk dituztenak ere. Elkartea sortu genuen gure semeekin modu bidegabean jokatzeko zela ikusi eta gero, bai kalean eta baita ikastetxeetan ere. Elkartu ginen eta jasan behar dituzten egoera guztiei buruz hitz egin genuen: ikastetxeetan dituzten egokitzapen apurrak, nola tratatzen dituzten eskolan edo parkean, beste umeek zein helduek. Ume hauek, beste edozein pertsonak bezala, dituzten eskubideak defendatzeko sortu genuen Alanidah elkarte.

Zeintzuk dira orduan elkartearen helburuak?

Angelica Trimiño: Alde batetik, elkartearen bidez gurasoek elkarrekin hitz egiten dugu eta bakoitzak jarraitzen ditugun pautak beste familientzat ere baliagarriak diren ikus dezakegu. Barrenak husteko ere balio digu. Izan ere, askotan ez gaituzte ulertzen. Jende batek uste du guk gaizki hezten ditugula gure seme-alabak ADHN izateagatik, eta ez da horrela. Haur hauek ez dituzte gauza batzuk besteek bezala ulertzen. Nik bi seme ditut, biek dute ADHN, eta horrez gain, batek garapenaren nahasmendu orokortua (GNO) du eta besteak lengoiaren nahasmendua eta emozioen nahasmendua ditu. Hortaz, nagusiak bi urteko heldutasun atzerapena du, eta bere kideek umeagoa edo ikusten dute, eta esaten zizkioten gauzak mintzen zuten maiz. Baina nik haurrei ez diet errurik leporatzen, badakit eurentzat ulertzeko zaila dela. Horregatik, egoera berdinean dauden amekin topo egiten duzunean babestuago sentitzen zara.

Ana Belen Martin: Beste helburuetako bat ADHNari ikusgarritasuna ematea da. Mundu guztiak entzun du norbait horren inguruan baina inork ez daki benetan zer den barrutik bizitzen duen arte. Gure seme-alabak, jendearen ikuspuntutik, lotsagabeak edo baldarrak dira. Nik arazoak izan ditut eskolan, nire semea inpulsiboa delako, eta burutik pasatzen duen lehenengo gauza esaten duelako, ezin baitu kontrolatu. Eta horrek eraman gaitu eskolan beste familia batekin arazoak izatera, eta nahiz eta azaldu zaien, ez dago ulertzeko modurik. Eta ez dira

bakarrak, horrelako jende asko dago.

Zer eskaintzen duzue elkartetik?

S.L.: Hitzaldiak ematen ditugu, gazteleraz. Haien bidez nahasmendua ezagutzera eman nahi dugu, ikastetxeetan, gurasoei, ikasleei, irakasleei edo hala nahi duenari. Ni arduratzen naiz hitzaldiak emateaZ, eta ordura arte bi egin ditut, Amurrión eta Gasteiz alboko herri batean.

Eta zer nolako harrera izan dute?

S.L.: Oso ona. Azken finean gaiari buruzko interesa duen jendea da, galderak egiten dituzte... Seguruenik gehienak irakasleak dira, edo beren seme-alabek nahasmendu hau izan dezaketela susmatzen duten gurasoak, edo dagoeneko nahasmendu hau duten haurrak dituzten familiak, gaiari buruz gehiago jakin nahian.

Horrez gain, maiztasun batekin bilerak egiteko asmoa duzue, ezta?

A.B.M.: Bai. Hilean behin biltzeko asmoa dugu. Eta etorri nahi dun orori dago zabalik: familiei, irakasleei... Gainera ez dago kuotarik, doakoa da.

S.L.: Bileretan parte hartu nahi dutenak nirekin jar daitezke harremanetan (658 95 06 05). Horretaz gain WhatsApp-eko difusio kanal bat ere badugu, deialdiak eta eguneratzeak bidaltzeko. Baina hor jendeak ezin dezake ekarpenik egin, bestela kaosa izan liteke.

A.T.: Esperientziak eta partekatze bilerak daude. Nahi duena etor daiteke, eta gutako edonork edo gaiari buruz dakien norbaitek ahal beste lagunduko dugu.

Lehen esan duzue elkarte babesleku seguru bat dela.

A.T.: Bai, ez zara hain epaitua sentitzen. Nik ez diet errurik leporatzen gainontzeko amei, eta are gutxiago haurrei. Baina seme-alabei errespetu faltarik ez izaten erakusten diegun bezala, besteak nola sentitu ahal diren azaltzen saiatu beharko ginatke. Baina azaldu ahal izateko gaia ezagutu beharra dago.

Amak dituzue uneoro mintzagai. Uste duzue, zuok zaretela, hain zuzen ere, arduraren gehiena zuen gain hartzen duzuenok?

A.B.M.: Nik baietz uste dut. Nire kasuan, hala da.

S.L.: Beti dago salbuespenen bat, baina orokorrean hala da. Eskolako kontuei dagokienez, etxerako lanak, azterketak, eskolaz kanpoak... orokorrean amak gara horretaz arduratzen garenok. Horregatik, gai honi buruz hitz

elkarrizketa

egitean ere amak aipatzea ez nau harritzen, kontrara, ohikoa egiten zait.

A.B.M.: Nik askotan nire senarrari gogorarazi behar diot bere semeak arazo bat duela. Eta orduan pentsatzen dut: “nola ulertaraziko diot kanpoko jendeari, batzuetan bere aitari ere zaila egiten bazaio?”

S.L.: Haiek beste era batean kudeatzen dute. Ez dut orokortu nahi, baina uste dut emakumeok gaiago garelako gure emozioak ulertzeko, besteei erakusteko eta gure haurrei ikusarazteko. Uste dut, oro har, gizonak hotzagoak direla, ez dutela hainbesteko ardurarik hartzen. Ez dut esan nahi haiek ez direnik maitekorrak, edo ez direnik euren seme-alabengatik kezkatzen, baina agian beste era batean erakusten dute.

A.T.: Azken finean, heziketa kontu bat da. Nik batzuetan ikusten dut nire senarrak gure semeak hezi nahi dituela bera hezi duten moduan. Eta horrela izan ez dadin saiatzen da. Izan ere, guk umeak terapiara eramaten ditugunez, psikologoak pautak ematen dizkigu, nola jokatu jakin dezagun. Hortaz, pautak horiei jarraitzen saiatzen da, baina batzuetan modu

“Barrenak husteko ere balio digu elkarteak. Izan ere, askotan ez gaituzte ulertzen. Jende batek uste du guk gaizki hezten ditugula gure seme-alabak ADHDN izateagatik, eta ez da horrela”

instintiboan ateratzen zaio. Baina ez da aurpegiratu daitekeen ezer.

Begoña Tome: Urrian egin genuen hitzaldira joan ziren gehienak emakumeak ziren, baina gizon batzuk ere bazeuden, eta nik oso positiboki baloratu nuen hori. Orduan ere ikusi genuen familia askok duten kezka bat dela. Nire ustez premiazkoa da ikusgarritasuna ematea, hitzaldi horietara doan jendea, oro har, aurretiko kezka duen jendea baita. Uste dut helburua izan beharko litzatekeela *a priori* interesik ez duen jendearengan, arazo hau bere inguruan ez dutenengan ere, berez kanpoko den zerbaitekiko sentsibilitate hori piztea. Bide horretatik helduko litzateke benetako aldaketa. Izan ere, bazterkeria ez da etorriko problematika hau dagoeneko ezagutzen duen norbaiten eskutik, arazo horren berri ez dakien norbaitengandik baizik. Horra heldu beharko ginatke, haurren zein helduen artean aldaketa bat egoteko, baina prozesu luzea da.

Izan ere, oraindik oztopo askori egin behar diezue aurre egunerokoan.

A.T.: Bai, ikastetxeetatik hasita,

han arazo asko baitaude. Eusko Jaurlaritzaren protokoloaren arabera, ikasgelan arazo bat duen haurren bat badago, ez bakarrik ADHDN, irakasleak gai horretan espezializatu behar du. Askotan, baina, guk eman behar dizkiegu umeak tratatzeko pautak. Edo are, ez dira jabetzen ume horrek nahasmendua duela. Nik, adibidez, banuen nire seme txikiak ADHDN izan zuelako susmoa, eta psikologoarenera eramanez genion, ez baitzuen bere anaiaren GONa ulertzen. Bigarren saioan, gai bat mahaigaineratu nahi zuela esan zidan: “zure semeak hiperaktibitatea edo arreta-defizita dauka, edo biak batera”. Nik banekien hala izan zitekeela, baina nahiago izan nuen aurretik ezer ez esan.

S.L.: Orain dirudi gaiaren inguruko boom handia dagoela, baina hori gertatzen da lehenago ez delako egon. Agian nire senarrak ADHDN dauka, baina lehen “gaiztoa” zen, “bihurria”, “liskarzalea”... lehen ez baitzen diagnostikatzen. Gehien bat genetikoki jasotzen denez, orain kasu gehiago daude, prestatuago daudelako. Huts egiten duena haurren egokitzapena da, askotan irakasleek ez badakite nola jokatu,

eta nahiz eta guk pautak eman, horiek ez dira betetzen. Guk badaugu ikasgela batean haur asko dagoela eta bakoitza ezberdina dela, baina egokitzapen batzuk oinarritzkoak dira.

A.T.: Alarmak piztuta izatean datza. Batzuetan uste dute ume bat ezin dela hiperaktiboa izan bi orduz egon daitekeelako zerbaitezara jolasten. Baina hiperaktibitatea duten haur guztiak ez dira berdinak, eta ADHDN ez da haur guztiengan berdina.

S.L.: Neskengan ere oso ezberdina da.

Zuek guztiok semeak dituzue. Aukera gehiago dute mutilek ADHDN izateko?

S.L.: Errazago detektatu daiteke mutilengan, agerikoagoa da. Neskei dagokienez, ezinezona menta-lagoa da.

A.T.: Nik ikasi dudana genetik, neskek perfekzionistagoak izan ohi dira, eta gauza jakin batean jartzen dute hiperfokua. Neskek beste autokontrol mota bat dute, mutilak inpulsiboagoak dira, nahiz eta zerbaitez gustatzen bazaie, orduak egon daitezkeen hiperfokua horretan jarrita.





Nøgen taldeak borobilduko du Laudioko *Euskaraz Jaia*ko egitaraua

Urtero antolatzen da Laudion Euskal Jaia, baina aurtengo edizioa ohikoa baino bereziagoa izango da, hainbat eragilek indarrak batu dituztelako bi eguneko egitaraua antolatzeke. Balarriñak, Suziri Jai Batzordeak eta Kirikiñok atera dute aurrera ekimena, Udalarekin elkarlanean, eta gaur arratsaldean egin dute programa aurkezteko agerraldia.

Irailaren 27an hasiko da jaia, 17:00etan. Umeentzako tailerrak, txokolate jana eta buhendi mitologikoen erakustaldia eskainiko dituzte plazan.

Laurehun laguntzako bazkaria

Larunbatean, aldiz, baserritarren merkatua, herri-kirrolirekia eta Akelarre dantzataldearen ikuskizuna egongo dira Aldai plazan, goizean zehar. Toki berean egingo da gero herri bazkaria. Aurreratu dutenez, laurehun tikitjarriko dituzte salgai Gorka eta Ilargi tabernetan, 10 euroren truke. Bertsoek hartuko dute protagonismoa bazkalostean, Juanjo Respaldiza, Oihane Perea, Manex Agirre eta Maddalen Arzallusekin. Serapio Lopez baranbioarra arituko da gai-jar-tzaile lanetan. Horrez gain, bingo musikatua eta

mus-lehiaketa ere egongo dira, 16:30ean. Musikasikak hartuko du protagonismoa arratsaldean, kantukada egingo baita herriko kale nagusietan barrena. Irrintzi txapelketak hartuko du gero lekukoa. Nøgen talde ospetsua arduratuko da gaueko txanpari hasiera emateaz, eta bere ostean igoko dira Aldai plazako oholtzara Zirkonik Bez erromeria eta Aztarnak Djek. Jaitik harago, hizkuntza ohituretan ere eragiteko asmoa dute antolatzaileek. Horretarako, 2.000 pegatina eta 700 txapa banatuko dituzte, "Badakit badakizula. Egin dezagun euskaraz" lemarrekin.

KIROL JARDUERAK

09.27 Ostirala
18:30 LAUDIO
ERRUGBI ENTRENAMENDU
IREKIA
Aiaraldeko Astoak Errugbi
talde berriaren aurkezpen
saioa
Gardea kirolgunea

09.29 Igandea
11:30 URDUNA
URDUÑA HIRIA HERRI
KROSA
Foru Plaza

10.04 Ostirala
20:15 AMURRIO
MASA KRITIKOA
Bizikleta martxa
Guk parkea

10.06 Igandea
07:30 OROZKO
OROZKO HARANA XXXIV.
IRAUPEN MENDI IBILDIA
Zubiaur Plaza

IKUSKIZUNAK

09.29 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
BISITA ANTZEZTUAK
Aurretik izena eman
behar da
Alde zaharra

10.05 Larumbata
20:00 AMURRIO
HARREMAN
Zirkoaurre konpainiaren
dantza emanaldia
Amurrio Antzokia

10.06 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
BISITA ANTZEZTUAK
Alde zaharra

LITERATURA

09.26 Osteguna
19:00 AMURRIO
NOBELA BELTZ ETA
POLIZIAKOAREN II.
NAZIOARTEKO JAIALDIA
Liburutegia

10.04 Ostirala
19:00 LAUDIO
GURPILAK LIBURUAREN
AURKEZPENA
Eztizen Artolaren eskutik
Gure Aukera elkartea

10.08 Asteartea
17:00 AMURRIO
KAFE LIBURUAK +65
Laura Medelek dinamizatuta

JAIAK

09.27 Ostirala
AIARA
MENAGARAIKO JAIAK
12:00 // Meza nagusia
12:30 // Hamaiketakoa
19:00 // Jolas herrikolak
20:30 // The Curlys
22:30 // Txokolate jana
Menagarai

09.27 Ostirala
OROZKO
BERAZAKO JAIAK
17:30 // Kalakan egurrezko
jokoak eta graffitti tailerra
18:30 // "Pontxa ta Foblin
jolas eta ipulin" umeentzako
ipuinak
21:00 // Beranduegi
erromeria
Bitartean: Sardinak
Beraza auzoa

09.28 Larumbata
AMURRIO
LEKAMAÑAKO JAIAK
08:00 // Erakustxakurren
Arabako Kopa
12:00 // Jaien hasiera kanpai
errepikarekin
13:30 // Erakustxakurren
Arabako koparen sari
banaketa eta pintxo-potea
15:00 // Herri bazkaria
16:30-19:30 // Puzgarriak,
kart-ak, pintura-face tailerrak
eta ginkana
19:30 // Txokolate jana
20:30 // Odoloste jana
22:00-0:00 // The Smoke
Dealers
Lekamaña

09.28 Larumbata
OROZKO
BERAZAKO JAIAK
14:30 // Herri bazkaria. Izena
emateko epea irailaren 27ra
arte Orozkoko Sindikatuan,
Induman, eta Bengoetxea
tabernan
Ondoren: Bingoa.
17:30 // XXVII. Mus Azkar
Txapelketa.
18:30 // Las Fellini
21:00 // Joselu Anayak
Ondoren: DJ K
Beraza auzoa

09.28 Larumbata
AIARA
BEOTEGIKO JAIAK
18:00-20:00 // Gizonezkoen
eta emakumezkoen bolo-
txapelketa.
20:00 // The Karpys
taldearen emanaldia
20:30 // Errekia.
21:30 // Dantza-emanaldia
Baisala taldearekin eta Juanlu
DJ.
22:30 // Sotano 52 taldearen
kontzertua.

Errugbi

entrenamendu irekia Gardean



Aiaraldeko Astoak Errugbi talde sortu berriak bere lehenengo entrenamendu saioa egingo du ostiralean (irailak 27) Gardeako kirolgunean. Saio irekia izango da, errugbia probatu nahi duen ororentzat. Talde sortu berriko kideek azpimarratu dute “ondo pasatzea eta disfrutatzea” dela entrenamendu saioen helburua, eta oinarrizko mailatik hasiko dira errugbia eskualdean zabaltzen.

Mimbiziaren Aurkako

V. ibilaldia irailaren 29an egingo dute, Amurriotik abiatuta



Amurrioko Aurreraka Emakume Elkar-teak Mimbiziaren Aurkako V. Martxa antolatatu du Amurriotiko Udalaren eta Arabako Mimbiziaren Aurkako Elkartearen laguntzarekin. Irailaren 29an izango da, igandean, 10:00etatik aurrera.

Ibilbidea Juan Urrutia plazatik abiatu eta bertan bukatuko da. 7 kilometro ditu guztira, eta “adin eta era guztietako pertsonentzat egokituta dago”. Behin plaza igaro ondoren, Olako, Nerbioiko Parke Linealaren hasiera,

Abiaga eta El Reforretik igaroko da, eta bertan hornidura eskainiko da. Bosgarren edizioa da aurtengoa, eta “egiten duten lanarekin pozik” daudela nabarmendu dute elkarrekin. Irailaren 29an izango da, igandean, teko kideek.

Iragan astetik zabalik dago Aurreraka Elkartearen bulegoan (Kultur Etxeko lehen solairuan) aurrez aurre izena emateko aukera 11:00etatik 13:00etara. Azoka egunak ere probestu dituzte Laudion eta Amurrtion izena emateko postua jartzeko.

Urduña Hiria Herri Krosa ospatuko dute irailaren 29an



Urduñako Arando korrikalari taldeak irailaren 29ean egingo du Urduña Hiria Herri Krosaren edizio berria. 10 kilometroko ibilbidea bete beharko dute parte hartzaileek. 11:30ean izango da irteera, Foru Plazatik. Aurtten lasterketa berribat gehitu dute kirol hitzordura: 6 kilometroko froga herrikoia. Lasterketa nagusien ostean, froga paralimpikoa eta txikikrosa egingo dute. Izen ematea zabalik dago honezkero Internet bidez. Irailaren 25ean eta 26an, ordea, aurrez aurre izena emateko aukera egingo da ere, Alondegian atonduko duten postuan



Jai maratoniak ez du etenik

Udako jai maratoniari leukoa hartu dio udazkenak, eta datozen asteetan hamaika herri eta auzoetan antolatuko dituzte festak. Udalerri nagusietako jai handietatik aparte, herri giroa eta bizilagunen arteko loturak sendotuko dituzte, besteak beste, Menagarain, Lekamañan, Berazan, Belandian edota Betoegin.

HITZALDIAK

10.04 Ostirala
19:30 ZOLLO
PALESTINARI BURUZKO HITZALDIA
Aitor Bikaindi Eskutzaren eskutik
Zolloko taberna

BESTELAKO JARDUERAK

09.27 Ostirala
18:30 OROZKO
IRRINTZI BAT DABIL Txiki eta Otaegiren fusilamenduaren 49. urteurrena
Zubiaur Plaza

Liburutegia

23:00 // Zozketa
00:00 // Txokolata
Beotegi

09.29 Igandea
AIARA
BEOTEGIKO JAIAK
12:00 // Meza nagusia
12:30 // Bolo txapelketaren finala.
14:00 // Zozketa
14:30 // Herri bazkaria Juanlu DJak alaituta
Beotegi

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak,
688 848 152 zenbakira

AIARALDEA GAUR
mezua bidalita!



Batu Telegramera
t.me/aiaraldea
esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



kultura

“Lainoak ez du inoiz sua hartzen, auto istripu batean ez bada, orduan bai, orduan kiskali egiten du”



ENDIKA DIAZ GARCIAK EUSKAL HERRIA ARGAZKIA.EUS SARIKETA IRABAZI BERRI DU ARDE LA NIEBLA PROIEKTUARI ESKER. 1962AN URDUÑAKO MENDATEAN JAZOTAKO ISTRIPU LARRIA DU HIZPIDE LANAK.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Euskal Herria Argazkia.Eus Lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi duzu Arde la niebla izeneko lanarekin. Argazki proiektuak Urduñako mendatean gertatutako autobus istripu sonatu bat du oinarri; nondik abiatu zinen hau garatzeko?

Denboraren poderioz ohartu naiz; proiektu honetara hurbildu ninduen gaztetan gidatzeari eta errepideari izan nien beldurra izan zela. Pentsa, 20 urterekin atera nuen gidabaimena eta hamaika urtez izan nuen gordeta mesanotxean. Guztiz beldur irrazionala zen hura, inolako oinarririk ez zuena. 31 urte bete nituenean bigarren eskuko auto bat lortu nuen, eta bizitzako une berean ekin nion argazkiak egiteari.

Gidatzeari beldurra kentzeko orduan, nolabaiteko akuilua izan zen argazkilaritza niretzako. Autoa hartzen nuen eta argazkiak egitera joaten nintzen. Nire lehenengo serie guztiak eskualdeko errepideei egindako argazkiak dira. Denak. Eta gertu dauden errepideen artean, asko hurbiltzen nintzen Urduñako mendatera. Gogoan dut txikitik, lagunekin igo nintzela noizbait bizikletaz, eta ordutik ezagutzen nuen Galegoen bihurtunea. Bane-kien han zerbait gertatu zela, baina zehaztasun gutxirekin. Nire familia Galiziakoa da, eta beti izan dut sentsibiltate handia herrialdearekiko. Horrek bultzatu ninduen gaiaren inguruan gehiago arakatzera. Dokumentatuz joan ahala gertakariaren nondik norakoak ezagutu nituen, eta orduan geroz eta maizago hasi nintzen mendatera etortzen argazkiak egitera.

Duela zenbat izan zen hori?

Proiektuaren hazia diren lehenengo argazkiak duela lau urte egin nituen gutxi gorabehera. Proiektuak, ordea, duela hiru urte edo hartu zuen forma sendagoa. Egunak eta egunak eman ditut bertan. Bereziki neguan, hotza pasatzera igotzen nintzen portura. Kamera soinena hartuta orduak pasatzen nituen inguruan ikusten nuenari argazkiak egiten.

Hasiera batean espazioari egiten nizkion argazkiak gehienbat. Beti iruditu izan zait mendateak baduela nolabaiteko energia berezia, batez ere goialdeko azken bihurtuneek. Lehenengo argazkiekin energia hori islatzea zen nire asmoa.

Proiektua testuinguruan jarrezarren; nora garamatzate argaz-

kiek? Zein da Galegoen bihurtunean gertatutako istripu hori?

1962ko uztailaren 24an, Galizako Compostela Orkestra Leongo Ponferrada hiritik Bilbora egin zuen bidaia, Santiago Egunaren testuinguruan Bilboko Galiziar Etxean kontzertua eskaintzeko asmoz. Urduñako mendatea jais-tean istripua izan zuten lehenengo bihurtunean, eta mendatean behera 200 metro amildu zen mikrobusa. Frankismo garaiko hedabideetan oso informazio gutxi azaltzen da ezbeharraren inguruan, baina orduko kroniken arabera mikrobusaren balaztek ez zuten funtzionatu. Mendatea lainotuta zegoela azaldu zuten egunkarietan, baina hainbat lekukoren arabera egun sargoritsua izan zen hura. Informazioa ez dago oso argi. Hamasei pertsona zihoazen autobusean; hiru unean bertan hil ziren eta laugarren musikari bat ospitalean zendu zen: Juan Fernandez Barros, Paulino Prado, Jose Casal Brea eta Jesus Sanchez Picon.

Sentsazioa dut eskualdean istripuak izugarritzko sona izan zuela, eta nolabaiteko shock kolektiboa eragin zuela. Batez ere Urduñan, herritar askok eta askok gogoratzen dute pasartea. Urduñako bizilagun ugari, garaiko alkatea tartean, aritu ziren biktimak artatzen eta ospitalera eramaten. Jende asko mobilizatu zen, eta askoren memorian iltzatuta dago oraindik gertakaria.

“Sentsazioa dut eskualdean istripuak izugarritzko sona izan zuela, eta nolabaiteko shock kolektiboa eragin zuela”

Zerk piztu zuen zehazki gaiarekiko interesa?

Hastapenetan, galegoen bihurtuneko istripuak nolabaiteko oina-

rria ematen zion proiektuari, baina oraindik ez zegoen lanaren erdigunean. Hasieran errepidearen estetikak erakartzen ninduen, eta, batez ere, bertako klimak: urtean ia 250 egunez sartzen da behelainoa. Euria egiten duen aldiro oso behelaino trinkoa dago azken bihurguneetan.

Gerora hasi zinen, orduan, istripuaren gaia modu esplizituagoan lantzen.

Denborarekin espazioaren argazki horiek Urduñako mendatean soilik egin daitezkeen argazki subjektiboekin nahasten hasi nintzen, nolabait auto istripuak irudikatzen zituzten argazkiekin.

2023. urte hasieran, Laudioko tipo baten bideo bati esker, jakin nuen bazeudela oraindik istripuaren hondarrak mendateko magalean. Susmoa baneukan aurretik baina hauek topatu ezinik nenbilen. Hainbatetan sartu nintzen bihurgunearen azpiko basoan, baina ez nuen ezer topatu. Laudioko pertsona horrek, ordea, zehatz-mehatz azaldu zidan non

“Autobusaren arrastoak aurkitzeak beste dimentsio bat eman zion proiektuari”

bilatu behar nuen. Ordurako, argi eta garbi, autobus istripua zen proiektuaren epizentroa, baina arrastoak aurkitzeak beste dimentsio bat eman zion gaiari. Hori izan da proiektuko erronkarik handiena, autobusaren hondarrei egindako argazkiak argazki bilduman txertatzea. Hasieran ez nion *enkajerik* ikusten, baina hainbat argazkilarirekin ideia elkarbanatu ostean, esan zidaten baietz; zentzu guztia zeukala.

Banituaren espazioak, banituaren arrastoak eta banituaren argazki subjektiboak. Material hori guztia ordenatuta nuela, Urduñako udallexera jo nuen. ADRAtan elkarreko kideei esker istripuaren artxi-boa lortu nuen, eta argazkiak egin nizkion. Oso eskertuta nago. Gauza interesgarriak topatu nituen bertan; biktimen senideek Urduñako herriari bidalitako esker telegrama, besteak beste.

Izugarrizko aurkikuntza izango zen Urduñako artxiboan topatutakoa, ezta?

Aurkikuntzarik ikusgarriena,

“Garaiko artxibozainak denetarik bildu zuen Amurrioko espedienteetan: istripuaren biharamunean orkestrak Bilbon eskaini behar zuen kontzertuaren kartela, istripuaren eskema zehatza, telegramak...”

ordea, Amurrioko Udal Artxiboan egindakoa izan da. Kasualitatez istripuaren beste espediente bat aurkitu genuen, ez zegokion tokian galduta. Aurten gertatu da hori. Nik Amurrioko udaletxean egiten dut lan, muturren aurrean izan dut beti. Egon zitekeenaren susmoak genituen baina ez genuen inondik inora topatzen. Halako batean, artxibo desordenatu batzuen artean, han agertu zen. Itzela. Horrek bai zabaldu dizkidalda ate guztiak, faltan nuen azken pieza!

Garaiko artxibozainak denetarik bildu zuen Amurrioko espedienteetan: istripuaren biharamunean orkestrak Bilbon eskaini behar zuen kontzertuaren kartela, istripuaren eskema zehatza, telegramak... Ez dakit nork bildu zuen informazio hori guztia, baina egundoko dokumentazio lana egin zuen. Kriston altxorra da.

Nola antolatu dituzu argazki horiek guztiak proiektu bako-rreran?

Lehen aipatu bezala ez da lan



Lau urtez aritu da Endika Diaz Urduñako mendatea erretratatzeko. **Endika Diaz, Arde la niebla**

kultura

erraza izan pieza guztiak *enkajatz*ea. Diptikoak osatuz joan naiz, argazki mota desberdinak nahastuz. Thriller baten modura antolatu ditut argazkiak dossierrean, istripua bera irudikatu nahian.

Datozen hilabeteetan egingo ditudan erakusketetan, edota gerora argitaratu dezakdean balizko argazki liburu batean, bestelako ordena izan dezakete irudiek, baina, momentuz, thriller baten modura antolatu ditut.

“Thriller baten modura antolatu ditut argazkiak dossierrean, istripua bera irudikatu nahian”

Arde la niebla izena jarri diozu lanari.

Proiektuan murgilduta nengoe la Sara Medina izeneko autore baten poemarioa jaso nuen. Olerki bilduma horrek *Como arderá la niebla* zuen izena. Bildumako olerkietako batek oso ondo sintetizatzen zuen nire lana. Horregatik oso aproposa iruditu zitzaidan *Arde la niebla* izenburua jartzea proiektuari. Sinestesia bat da, lainoa ez da inoiz erretzen, auto istripu batean ez bada, orduan bai, orduan kiskali egiten du.


Sara Medinaren atzetik ibili nintzen berarekin kontaktuan jartzeko. Gerora jakin nuen Sara Medina pseudonimo bat zela, eta horren atzean bi egite zaudela.

Euskal Herria Argazkia. Eus Lehiaketara aurkeztu duzu proiektua, zerk bultzatuta?

Espedienteei egindako argazkiek borobildu egin dute lana, nolabait. Ez dakit bukatuta dagoen proiektua, baina uste dut forma sendoa daukala, horregatik aurkeztu nintzen sariketaren lehen ediziora.

Argazki berriekin proiektuan sakontzeko asmoa daukazu?

Atea zabalik utzi nahi diot argazki-bilduman erretratuak txertatzearen aukerari. Lehen aipatu bezala ezbeharrak nolabaiteko trauma eragin zuen eskualdean; eta horren lekuko izan ziren per-



Amurrioko Udal Artxibategian aurkitutako 1962ko istripuaren nondik norakoak azaltzen dituen eskema. Endika Diaz, *Arde la niebla*

tsonen erretratuak egiten hasi naiz. Oraindik oso gutxi ditut, eta gerora erabakiko dut erretratu hauek proiektuan sartu edo ez.

Espero zenuen sarituen artean egotea?

Ez nuen espero, inondik inora. Ez nuen inolako pretentsiorik. Maila oso altua egon da sariketaren lehen edizioa izateko. Oso pozik nago emaitzarekin.

Aretxabaletan aurkeztuko duzu lana urriaren 5ean. Zer etorkizun aurreikusten diozu proiektuari?

“Poz handia hartuko nuke egunen batean nire proiektua Santiagon erakutsiko balitz”

Eskualdean erakutsi nahi dut lana batez ere. Urduñako Museoa egongo da ikusgai datorren urtean, eta Amurrion erakusketa antolatzea gustatuko litzaidake ere. Gainera, baditut hainbat ideia erakusketa horiek hornitzeko, hala nola interbentzio artistikoa egitea autobusaren hondarrekin.


Etorkizunak esango du non amaitu behar duen proiektuak, ez du merezi kabalak egitea.

Iritsi al da Galiziaraino zure argazki proiektuaren berririk?

Nik beti pentsatu dut argaz-

ki-proiektu honi amaiera bikaina emateko modua zela itriputik bizirik atera zen musikariren baten eskuetara iristea. Asko arakatu dit istripuko biktimak topatzeko, hori izan da lanaren zatirik zailena, eta, antza, gaur egun ez da inor bizirik geratzen. Haritik tiraka, artxiboetako abizenak lotuz, hilerriak bisitatuz, galdetuz... ibili naiz. Azkenean aurkitu dit biktimetako baten semea, baina ez dut oraingoz askoz gehiago sakondu. Poz handia hartuko nuke egunen batean nire proiektua Santiagon erakutsiko balitz.

kultura



kultura

“Guztion borroka da, ez bakarrik pertsona lodiona”

JARE PRIETO (Laudio, 1992) *GORDURA* PIEZAREN SORTZAILE ETA ANTZEZLEA DA. **EVA PEREZ PONS**ekin (Lemoa, 1996) PIEZAREN EUSKARATZE PERFORMATIBOAN MURGILDU DA. LODIFOBIA DUTE HIZPIDE.



Testua **Maider Ramirez Martin**

Jare, Gordura piezaren sortzaile eta antzezlea zara. Zelan sortu da proiektu hau?

J.P: Proiektu hau duela urtebete sortu zen. Nire koadernoan idazteko ohitura daukat, hasi nintzen idazten, eta pieza hau sortu zen. Ay Dragmela taldean aurkeztu nuen lehenengo aldiz.

Lodifobia lantzen duen proiektua da nagusiki.

J.P: Bai. Ni lodia izanda uste dut beharra neukala bizi dudana biolentzia azaleratzeko, jendeari erakusteko.

Eva, zuk itzultzaile eta laguntzaile tekniko lanak bideratzen dituzu. Ez duzu soilik pieza euskaratu, baizik eta euskaratze performatiboa egin duzu. Zelakoa izan da prozesua?

Eva Perez: Jarek proposatu zidan pieza euskaratzea, nahiz eta testu horretan dagoen edukiekin nire gorputza ez datorren bat, baina Jarek esan zidan berarentzat garrantzitsua zela ni hor egotea. Hori izan zen sortu zen lehenengo eztabaida edo elkarrizketa.

Itzulpen prozesua bai izan dela prozesu baten parte. Ez da izan itzulpen bat eskaintzea eta horrekin geratzea. Kontrara, hasiera batean itzulpen literalagoa egin dugu, eta gero biok batera eseri gara ikustera ea ze parte aldatu nahi genituen, testuaren erritmoa eta zentzua mantentzeko. Biok egon gara moldaketak egiten eta erritmo hori lortzen.

Eta lortu duzue?

E.P: Nik uste baietz.

J.P: Bai, esango nuke baietz. Hitzak edo esaldiak aldatzean, euskaraz edo gazteleraz ez dira berdin esaten, baina behintzat mezua bera izatea zen helburua.

E.P: Erraztasuna eman du bai itzultzailea bai edukiaren sortzaile batera egoteak, pertsona bakoitzak ez duelako berdin antzezten. Bion parte hartzea garrantzitsua da momentu oro.

Lau zatiz osatuta dago pieza, eta horiek landu dituzue egonaldian. Zer jorratzen da bakoitzean?

J.P: Hau idatzi nuenean lau testu ziren, haien artean zerikusirik ez zeukatenak. Irakurri nituenean ikusi nuen ez zutela harremanik. Lehenengo zatia kanpora begira bizi izan ditudan biolentzien ingurukoa da. Bigarrena, berriz, nire identitate edo etiketei buruzkoa, beti *lodi* terminoan bukatzen direnak. Lodi izateak pisu handia dau-

ka nire bizitzan. Hirugarrena gazteleraz mantendu dugu, dauden esaldiak edo hitzak nire bizitzan zehar entzun ditudan biolentziak direlako, eta horregatik bere horretan utzi ditugu. Itzultzean zentzua aldatzen dela uste dut. Eta laugarrenak kolektibizatzean jartzen du arreta, lagun lodiak edukitzeak nola laguntzen duen eta norberaren mina besteetan ere ikusten dela nabarmenduz. Finean, mina edo biolentzia kolektibizatzean. Lodi izateak pisu handia dauka nire bizitzan.

Zure bizipenetan dago guztiz oinarrituta, beraz.

J.P: Bai, dena. Gogorra da hor sartzea, berriro bizitzea, baina uste dut gogoak ditudala kanporatzeko, orain arte nik bakarrik bizi izan dut, eta pieza honekin lortu nahi dudana da jendeak bizi izan ditudan biolentziak ikustea.

E.P: Hirugarren aktoan, adibidez, mezua arrotza izanda, lortu dugu kanpo ahots hori hizkuntzari eta tonuari dagokionez ere arrotza izatea.

J.P: Bai, egia da. Hizkuntza ezberdina izanda, desberdintasuna handiagoa da, eta bolumena ere altuagoa da.

E.P: Kanpotik datorren ahotsa, garraxika dabilena, irainak botatzen, biolentzia botatzen.

J.P: Gainera, esaten dudana guztia izan bere horretan niri esan didatena da. Beraz, garrantzitsua zen ez aldatzea.

Lodifobiaren kontrako borrokan zabilta Jare, Ezin kabitun militatu izan duzu, besteak beste.

J.P: Bai, Ezin kabitun militatu dut, eta orain *transgordura* hitzaldiarekin nago. Behin egin dut baina asmoa da gehiago mugitzea. Beharra daukat kanporatzeko pribilegioak aldatu behar direla, eta lagun argalek ere lodifobiaren kontra egin ahal dutela. Guztion borroka da, ez bakarrik pertsona lodiona.

E.P: Plano diferenteetan egon ahal gara. Azpiegitura muntatzen edo hitzaldia leku batetik bestera mugitzen lagundu dezakegu. Presente edo ikusgarri egon gabe.

Baduzue esperientzia batera lan egiten, izan ere, Ay Dragmela drag ikuskizunean batera ibili zineten. Horrek erraztasunak ematen ditu?

J.P: Bai. Gainera egunerokotasunean ere elkarrekin gaudenez, erraza da elkar komunikatzea eta bakoitzaren erritmoak errespetatzea.

E.P: Normalean ez gara egunero egoten. Baina egonaldiak seie-

gun hartu ditu, goizetik arratsaldera arte, eta hor beharrezkoa da bakoitzaren erritmoak eta energiak ezagutzea eta neurtzea, eta horren arabera lan egitea. Lagunak izateaz gain, bai lagundu duela Ay Drag-melan lan egiteak, arlo artistikoan elkar ezagutzeko.

Faktorian egin duzuen egonaldia artistikoa aipatu duzue, zelan esperientzia?

J.P: Nahiko intentsoa. Espazioa oso ondo dago, argiarekin arazo batzuk izan ditugu, iluntasuna behar genuen eta espazioa oso argitsua da, baina uste dut konpondu dugula. Bestalde, baliabide asko daude lan egiteko: audioa grabatzeko, saioak grabatzeko tripodea, proiektorea... Hemen bazkaldu dugu egunero, gainera, oso goxo. Espazio lasaia da, lan egiteko oso ondo, gustora.

Etorkizunera begira, ze asmo duzue proiektu honekin?

J.P: Luzatzea da asmoa, eta antzerki moduko bat egitea. Leku ezberdinetan aurkeztea eta asko mugitzea.



APUNTEAK

Zer irakurri?

- Gordura y deseo (Fanzinea)
- El Puchero (Fanzinea)
- Stop Gordofobia (Fanzinea)
- 10 gritos contra la gordofobia (Fanzinea)
- El cuerpo no es una disculpa: El poder del autoamor radical (Liburua)
- El mito de la belleza (Liburua)

Nor jarraitu?



@arabako.balea



@daca_lgz



@magda_pineyro




@nadie.hablara.de.nosotros



@tesshache_



@alexaandrave



Faktorian eginiko egonaldian garatu zuten *Gordura* obraren euskaratze performatiboa Jarek eta Evak. Naia Vallejo Torres

babestutako edukia

Haur eta familien atelierrren faktoria

2024-2025 ikasturteko ikastaro eskaintza

AIARALDEA EKINTZEN
FAK
TO-
RIA



Astelehenetan 17:15-18:15

Ipuinen laborategia

Ipuinak jolasen bidez lantzeko, euskara landuz

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- **2016-2022** bitartean jaiotako haurrentzat.

Astearteetan 17:15-18:15

Bideopodcast eta irratigintza

Euskarazko ahozotasuna lantzeko


- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- **2010-2015** bitartean jaiotako haurrentzat.

Astearteetan 17:15-18:15

Eskulanen laborategia familian

Familia harremanak sendotzeko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- **2017-2021** bitartean jaiotako haurrentzat.



Astearteetan 18:00-19:00

Antzerki sormen laborategia

Antzerkiaren munduan jolasteko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- **2013-2018** bitartean jaiotako haurrentzat.

Asteazkenetan 17:00-18:00/ 18:00-19:00

Natur atelierra

Lurra, elikagaiak, sendabelarrak ezagutzeko

- **17:00-18:00** 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- **18:00-19:00** 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 2tik ekainaren 18ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

Ostegunetan 17:15-18:15/ 18:15-19:15

Dantza sortzailea

Gorputza ezagutzeko eta sormena lantzeko

- **17:15-18:15** 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- **18:15-19:15** 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 3tik ekainaren 19ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

Ezinbestekoa izango da aldez aurretik izena ematea faktoria.eus webgunean.

Palestinaren aldeko aldarria dakar Kulturlaberen mural berriak



Aimar Gutierrez Zumalakarregiko mural berriaren aurrean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2022an abiatutako ekimenari eutsiko dio Kulturlabek hasi berri den ikasturtean. Mural bat atontzen dute hilerio Zumalakarregi etorbideko pareta batean, herriko edota eskualdeko sortzaile batek espazio horretarako berariaz pentsatu eta eginiko lan batekin.

Udan zehar Jose Mari Castillo argazkilariaren collage bat egon da ikusgai, eta Aimar Gutierrezek

hartu du orain lekukoa, Palestinaren aldeko komiki-tira batekin. Igandean itsatsi zuten ilustratzaile audioarrak eginiko irudia, auzolanean.

Horrez gain, igandean eman zioten amaiera baita ere abuztutik Kulturlaberen lokalean ikusgai egon den erakusketari. Audioko 25 artisten piezak bildu zituzten bertan. Ikasturte berrian ere, beste hainbat sorkuntza ekimenei aterpea emateko baliatu nahi dute Elizalde kaleko espazioa.

Goroldiorik ez antzerki-pieza ibiltaria sortu eta zelaraitu dute Artziniegan



Antzerki pieza ibiltariak eman zion hasiera Arte Hartze zikloaren bigarren edizioari. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Dozenaka lagun bertaratu ziren irailaren 15ean Artziniegako Arteko zelaira *Goroldiorik ez* ibilbide kulturean parte hartzeko. Piszifaktoria Ideien Laborategiak sortu du

antzerki-pieza, Arte Hartze zikloaren barruan. Emanaldia berezia izan zen igandekoa, berariaz prestatu baitzuten okasio horretarako. Beste bost obra eskainiko ditu Kultur Faktoriak Harte Hartze zikloaren barruan, igandean, irailetik abendura bitartean.

Salgai daude Harte Hartze Ziklorako bonoak. Bazkide prezioa 30 eurokoa da, prezio orokorra 35 eurokoa, eta langabe eta ikasleen prezioa, berriz, 20 eurokoa. Bonoak ekitaldi guztietarako sarbidea ematen du, eta ekitaldi bakoitzean sarrera erosteko aukera egongo da baita ere.

Zinema plato bihurtuko da Urduña berriro ere, Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregiren pelikula berrirako

Testua
Malder Ramirez Martin

Maspalomas pelikularen eszenatoki bilakatuko da Urduña. Izan ere, Antiguako pasalekuan kokatuta dagoen Mariaren Konpainia eraikina zahar-egoitza bilakatuko dute filmaren pasarte batzuk grabatzeko. Moriarti Produksioak ekoiztetxea arduratuko da filma ekoizteaz eta Jose

Mari Goenaga eta Aitor Arregi arituko dira zuzendari lanetan.

Urduñarrek ere lekua izan ahaliko dute pantaila handian. Izan ere, proiektuan interesa duten herritarren parte hartzea eskatu dute, eta horretarako, Erretiratuen Etxean egon zen ostiralean, hilaren 20an, goizeko hamaiketatik aurrera. Informazioa emateaz gain, argazkiak atera zizkieten parte hartzeko in-

teresa zutenei. Honako hau ez da izango azken boladan Urduña zinema-plato bihurtzen den lehen aldia. Izan ere, azken bi urteetan *Karmele*, 8 eta *El Bus de la Vida* pelikulak filmatu dituzte hirian. Azken horren aurreneuraldia egin zuten Foru plazan uztailan, eta ehunka herritar bertaratu ziren pelikulaz zein ondorengo musika emanaldiaz gozatzera.

hitz
zentroa

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentro@gmail.com

- Logopedia.
- Pedagogia.
- Psikologia: umeentzako, helduentzako, bikoteentzako eta familientzako psikoterapia.
- Fisioterapia pediatrikoa.
- Gurasoentzako orientazioa


AFAK
baimendutako
HAURREN
GARAPENERAKO
eta ARRETA
GOIZTIARRA
lantzeko zentroa

PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

elkarrizketa

“Ederra izango litzateke Aiaraaldean bideo joko eskola edo estudio bat sortu ahal izatea”



PABLO ITURBURU CABEZA (Laudio, 1978) LAUDIOKO KESKA TABERNAN EGITEN DU LAN, BAINA ANIMATZAILE MODUAN ERE ARITU DA HAINBAT PROIEKTUTAN. ERREALITATE BIRTUALEKO BIDEO JOKO BAT EKOIZTEN ARI DA UNE HONETAN.



Testua eta argazkiak
Txabi Alvarado Bañares

Urteak damatzazu animazioaren esparruan lan egiten. Nola hasi zinen?

Nire kabuz, modu autodidaktan. Madrilen egin nuen lehen ikastaroa, duela 15-16 urte inguru.

Beti izan dut gogoko marrazkiak egitea, eta beti gustatu zaizkit pelikulak, komikia, bideo jokoak... txikitatik egon naiz mundu horretan murgilduta, baina kontsumitzaile bezala gehienbat, sortzaile gisa gehiago egin nezakeen [barreak].

Baina sortzaile gisa ere eman dituzu urrats ugari.

Bai. Olentzero eta iratxoan jauntxo film luzean izan nuen nire lehenbiziko lana animatzaile moduan. Ez nuen espero lan hori lortzea. Harrijasotzaile baten animazio bat egin nuen, eta horren bidez lortu nuen proiektuan sartzea. Proba bat egin zidaten lan-elkarrizketan. Iratxoaren pertsonaia animatu behar izan nuen: urrats batzuk eman, arrautz bat hartu, maltzur aurpegia jarri eta eszenatik alde egin.

Nolako esperientzia izan zen pantaila handirako film batean parte hartzea?

Alde batetik, ona. Hiru eszena animatu nituen, peliku-

lan agertzen direnak. Baina esperientziarik ez nuen, nahiko motel egin nuen lana eta zuzendariarentzat ez zen nahikoa. Hilabete bat baino ez nintzen egon bertan.

Kolpea izan zen hori?

Apur bat bai. Ez nuen espero horren gutxi irautea. Baina jarraitu nuen nire kabuz lanak egiten.

Lehen esan bezala, Madrilen egon nintzen animazioa ikasten. Pare bat master ikasi nituen bertan, bost hilabete koa bata eta seikoa bestea. Nire neskalaguna bertakoa zen eta hiruzpalau urte eman nituen joan etorriak egiten. Nire kabuz ere aritu nintzen hainbat programetan trebatzen.

Eta nola iritsi zinen berriro animazioan profesionalki lan egitera?

Esti Urresolaren bidez. Kuadrillakoa da eta Bartzelonan bizi zen une horretan, eta baita Egoitz (Uriarte) ere. Euren animatu ninduten bertara joatera zortea probatzera. Ez nuen ezer espero, baina proba egin nuen. Hilabete bat eman nuen lan bila. Inoiz ez dut izan animatzaile-portfolio ikusgarriarik, makina bat lagin txiki baino ez. Esti Urresolaren bidez lortu nuen lan-elkarrizketa animazio enpresa bateko jabearekin, gizon alemaniar bat, nahiko tipo bitxia. Bertara joan nintzen, inpresio ona sortu nien eta nekien hori egiten jarri ninduten.

Denetarik egiten nuen hasieran. Banuen esperientzia apur bat programa guztiekin, eta horregatik eskatzen zidaten edizio apur bat egitea, beste animazio apur bat... renderrez eta konposizioez arduratzen amaitu nuen, baina eszena batzuk animatzera iritsi nintzen baita.

Talde nahiko handia zen. Bi animazio telesail ekoizten ziren bertan, eta une batzuetan ehun pertsona egotera iritsi ginen lanean, hainbat sailetan banatuta. Atal bakoi-tzak 11 minutu irauten zituen, baina bakoi-tza egiteko hiru aste baliatzen genituen. Urte eta erdi eman genuen denboraldi osoa egiteko.

Nola baloratzen duzu esperientzia hori?

Oso ona. Txikitako amets bat betetzea bezalakoa izan zen.

Horren proiektu handia izanda, bazegoen sorkuntza propiorako tarterik?

Bazegoen, baina oso txikia. Gidoi bat zegoen, zuzendariak grabatzen zituen pertsonaia guztien behin-behineko ahotsak, erreferentzia moduan baliatzeko. Telesail hori amaitu ostean beste aukera batzuk atera ziren, baina taldeko jendea ez zegoen oso gustura: jabeak ez zuen ondo ordaintzen, bekadun asko baliatzen zituen... estudio askok izan dituzten arazoak dira horiek. Dirua atera nahi dute kostala ala kostala eta zuzendarietako asko ez dira ani-

elkarrizketa

matzaileak, apur bat oportunistak baizik. Animazioa gogoko dute, baina ez dakite ezer esparru horren inguruan. Dirua dute, jendea kontratatzen dute, lan taldea osatu... baina enpresa munduan apur bat sakonduz gero beti ikusten dituzu gauza zikinak.

Ordaindu gabeko ordu estra andana sartu nituen telesail horretan. Arratsalde askotan geratzen nintzen lanean, arazo asko egon zirelako animazioetako batzuekin, eta arazo horiek konpontzen eman genuen azken urte erdia. Krisi apur bat egon zen, haserreak... nik ez, nik badut trebetasuna albo batean geratu eta guztiakin ondo moldatzeko [barreak].

Dena ez zen txarra izan, oso ondo pasatu nuen lan-taldean. Oso lankide jatorrak izan nituen.

Esperientzia horren ostean ez duzu berriro lan egin animatzaile moduan modu profesionalean, baina jarraitu duzu proiektu pertsonalak egiten, bideo jokoan esparrura salto eginez.

Bideo jokoek barne hartzen dituzte gogoko ditudan arteetako asko: komikia, zinema, musika, estetika... Izan dezaketene alde iluna bada berez produktu bat direla. Bideo jokoak egiten dira salduak izateko eta dirua lortzeko. Badaude proiektu artistiko edo esperimentalak, baina bideo jokoak bere jatorritik dira berez produktu bat. Adikzioen gaia ere hor dago, edo nola baliatu ahal diren horrelako jokoak mundutik isolatzeko, baina hori ere egin dezakezu irakurtzen edo beste mila modutara.

Maya programa baliatzen genuen telesaila egiteko, eta software hori bera erabiltzen da bideo jokoak ekoizteko ere. Gauzak hala, Bartzelonatik itzultzean horrelako

programekin trebatzen jarraitu nuen, bideo joko baten ekoizpenaren fase guztien gaineko ezagutza izateko asmoarekin.

Handik denbora batera Toño Almenarekin lan egiten hasi nintzen. Berak plastilinazko panpinekin egiten zituen animazioak, eta txundituta geratu zen aipatutako programetan, horietan nahikoa delako mugimendu baten hasiera eta amaiera irudikatzearekin, “fotograma-gako”-en bidez. Gaur egun, Unreal Engine programa baliatzen dugu. Askok erabiltzen da, eta doakoa da irabazi jakin batzuk izatera iristen ez bazara. Toño hasi zen horretan trebatzen, eta gero batu nintzen ni. Egun batean batu ginen eta ideiak garatzeari ekin genion.

Proiektu bat duzue esku artean. Zertan datza?

Errealitate birtualean girotutako joko bat egiten ari gara. Jokalaria Cupido bilakatzen da eta bihotzak jaurti behar dizkio jendeari, gertakari baten ondorioz gorrotoa nagusitu delako munduan.

Tirokatzeko joko bat da beraz, baina klabe positiboan.

Hori da [barreak], inor hil gabe jokatu daiteke. Hala ere, pertsonaiei gezi batekin ematen diezunean dantzatzen jartzen dira eta zerura doaz. Bideo joko surrealista ateratzen ari zaigu.

Nola daramazue jokoaren sorkuntza prozesua?

Krisi momentu batean gaude orain. Bere unean beste proiektu bat egiten hasi ginen, baina konplexuegia zen. Horregatik, kasu honetan eszenatoki bakarrera mugatu dugu jokoak, dena gertatzen da parke batean. Une honetan,

arazoak ditugu jokoan agertzen diren pertsonaiekin, nahi dugun moduan jokatu dezaten. Jokoak funtzionatzea lortzen badugu, ni pozik.

Jokoa errealitate birtualeko betaurrekoekin jokatzeko izateak zaildu egiten du sorkuntza?

Ez bereziki. Plantilla batzuk baliatzen ari gara, eta horien gainean ari gara dena sortzen. Keska tabernan batzuetan egin izan ditugu topaketak errealitate birtualeko betaurrekoekin jokatzeko. Oso modu ona da bideo jokoetan murgiltzeko. Badago sakontasuna, espazioa, hori da izugarriena niretzat.

Pertsona ororen esku dago bideo joko bat egitea?

Bai. Ikasi nahi duenak inoiz baino informazio gehiago du eskura. Geroz eta jende gehiago dago bideo-jokoak egiten, inoiz baino “errazagoa” omen da.

Omen da?

Bai. Ordu asko sartu behar dira eta lan sakrifikatua da. Denbora da muga nagusia. Bideo joko handietan, adibidez, lan talde oso bat dago eszenatokiak sortzera bideratuta. Geroz eta kalitate grafiko handiagoa, orduan eta ordu gehiago sartu beharko dituzu proiektuan.

Ederra izango litzateke Aiaraldean bideo joko eskola edo estudio bat sortu ahal izatea. Amets bat betetzea izango litzateke. Horregatik, prest gaude interesa duen pertsona orori trebakuntza emateko.

Une honetan krisi apur bat dago bideo jokoan esparruan, pandemia garaian gainproduktzioa egon zelako, baina badago lana sektore honetan, eta egoten jarraituko du.



kirola

MENDIZALETASUNA

Jendetzak babestu zuten 8 Mila Bihotzez ekimena, eguraldia guztiz lagungarria ez bazen ere



Ezina Ekinez Egian elkarteak egin zuten azken igoera. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ostiraleko 21:00etan abiatu zuten 8 Mila Bihotzez ekimena Aldai plazan, sortzetiko kardiopatiaren elkarteak babesteko. Egitasmoaren alde nabarmena izan zen Goikoganeko tontorrera igotzeko hainbat herritarrek egindako ahalegina. Izan ere, orduro atera zen plazatik talde bat mendirantz, nahiz eta gauean euri-jasa egon.

Herriko kirol elkarte ugari batu ziren igoerara eta 11:30ean izan zen azkena. Ezina Ekinez

Egina taldeak 8 urteko ume bati lagundu zion lehenengo aldiz tontorrera eta jaitsieran jendetza izan zuten zain erronka amaitzeko. Spiderabel Fernandezek urtebetetzea zela baliatu zuten omenaldi txikia egiteko.

Goizean tailerrak, azoka eta elkartasun ekimenak antolatu zituzten eta gero herri bazkariaren ordua heldu zen.

Bihotzez elkarteak azaldu duenez, 7.000 euro inguru bildu ditu elkarteak sortzetiko kardiopatiaren kontra jarduten jarraitzeko.

FUTBOLA

Kimu eta benjamin talde ugari hartu dute Okondoko futbol zelaia



Athletic izan zen garaile 2013ko kimuen artean. **Okondo Cup.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondo Cup torneoaren bigarren edizioa izan da aurtengoa eta herriko kirol gunea jendez gainezka egon da.

2013ko kimuen artean Athletic

Cluba izan da garaile. 2014koen kategorian, aldiz, Osasuna gailendu zen irailaren 14ean.

Irailaren 15ean, aldiz, benjaminen txanda izan zen eta Etorbizunak eraman zuten garaipena.

ATLETISMOA

Amurrioko Nazioarteko Krosak saria jaso du Ciudad Realen

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrio Kros lasterketako antolatzaileek saria jaso zuten irailaren 20an ADOC elkartearen aldetik, Ciudad Realeko Pedro Muñoz udalerrian. Hainbat kirolariren, entrenatzaileen, hedabideren eta probaren lana aitortu zuten ekitaldian.

Horien artean dago Amurrio Krosa. Alegia, elkarteak goraipatu zuten lasterketa horrek sei urte eskasetan izandako goranzko bilakaera, aurtengo Nazioarteko Krosa izango baita. ADOCen ustez, proba bultzatzen duen kirolzale taldeak (Pablo Masburu duena) lortu du aurreko edizioetan egindako lanarekin Arabako Foru Aldundia konbentzitzea babesaren eman diezaion.

Amurriarrak pozik

Pablo Masek, hain zuzen, oso positiboki baloratu du aitortza: "ADOCen sartu ginen iaz hazten jarraitzeko, elkartearen parte hartzeak abantailak dituelako eta, adibidez, aurtengo krosa telebistan eskainiko dute".

Espainiako Estatuko hamalau proba-antolatzailek osatzen dute elkartearen.

KO
KO-
RI
KO

HEZKUNTZA
FAK-
TORIA

IRAILAK 29,
DOMEKA
11:00-13:00
FAKTORIAN

0-3 espazio askea

JOLASERAKO ESPAZIOA

Familien elkargunea

Haurrentzako gune segurua

Mugimendu autonomia eta jolas librea

0-3 urte bitarteko haurrak eta haien gurasoak/tutoreak.


Profesional baten bidelaguntza.

BAZKIDEAK 5€/haurra saioko • EZ-BAZKIDEAK 6€/haurra saioko

*Plaza mugatuak IZENA EMATEKO: www.faktoria.eus
webgunean edo 722 22 75 32 (Aritz) telefonora deituz.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 9an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Oihana

Oihana, lovely Friend, Zorionak!
Maite zaitugu

Ixe eta Nerewi



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

		9	3					5
3		5	4		8			
4	6	8			2		7	
7	3		8					
8				6				
5	4	6	2	9				3
	5			3	4			
6	8					5		
2	1				5			6

OSO ZAILA

		2				6		
	4				5		1	
3								8
	9				4			
			5	2				
			1		7		4	
8								3
	5		7				9	
		6				2		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/denborapasak>

Zozketa



***Euskalyptus* ikuskizunerako sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak**

Arte Hartze Zikloaren barruan, *Euskalyptus* ikuskizuna eskainiko dute urriaren 13 Faktorian **Parte hartzeko** sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Urriak 11, 15:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

HEMENDIK EZ PASA

Idazlea: Isabel Minhos

Itzultzailea: Garazi Arrula

Argitaletxea: Txalaparta

Adina: 8 urtetik gora

Guardiek beti betetzen dute Jeneralaren agindua. Ipuin honetan agindua argia da, ezin da orrialdearen muga gainditu. Autoritarismoaz hitz egiteko ipuin oso interesgarria.



NABUKODONOSOR

Egilea: Peio Esnal

Ilustratzailea: Jesus Lucas

Argitaletxea: Elkar

Adina: 10 urtetik gora

Herri txikietako arazoak konpontzeko modua bilatuko duzu ipuin hau irakurtzen duzun bitartean. Ipuin barregarria eta xelebrea da. Herri batean arraro hitz egiten hasten dira eta, alkatea kartzelara sartu arren, ez dira geratzen.



ETA UDAZKENEAN ZER?



Udazkenean euria egiten du eta kalean geroz eta hotz handiagoa. Gainera, egunak geroz eta laburragoak direla antzematen da.

Baina, ez gaitzen larritu, haurrekin egoteko eguraldia bikaina ez den arren, hainbat ekintza egin daitezke udazkenean ere!

Honahainbat gomendiokaleaz gozatzeko. Eta behin kaleaz gozatuta, etxean ere kaleko elementuekin egin daitezkeen hainbat ekintza proposatzen ditugu.

KALEKO EKINTZA POSIBLEAK:

- Putzurik putzu salto egin ea zeinek zabaltzen duen ur gehien.
- Zuhaitz ezberdinen hostoak bildu eta sortu zuhaitzen hiztegi propioa.
- Intxaur baten azalarekin txalupatxoa egin eta putzuren baten jarri.
- Goizetan dagoen behe lainoa bote batekin hartzen saiatu.
- Euriaren dilin-dalanarekin eta norbere gorputzarekin musika sortu.
- Haize ufadak erabili kometak dantzatzeko.

ESKULAN POSIBLEAK:

- Gaztainen kirikinoei begiak jarri eta munstroak sortu.
- Hostoen gainean kola zuria bota, sikatzen utzi eta begiak jarrita kristaletan pegatzeko mamuak sortuko dituzu.
- Basoan hartutako fruitu lehor, hosto, harri zein pinaburuekin mandala erraldoi bat sortu.
- Pinaburuak jaso eta zuhaitzak egin edo margotuta etxean dekoratzeko eskulana egin.
- Kalean topatzen dituzun makilekin zure kometa propioa egiten saiatu.



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Mari Teiletako

Gurean da jada udazkena! Udazkenarekin batera zuhaitzak beraien hostoak galtzen hasten dira, lore gutxiago ikusten dira eta iluntasunaren aroan sartzen hasten gara. Baina udaberria, berriz etorriko da, ziklo amaigabea.

Zuhaitzei udazkenean hostoak erortzen zaizkien bezala, pertsoneri ere 6-7 urte betetzean hortzak eta haginak erortzen zaizkigu. Fase aldaketa baten hasiera markatzen du erorketak, pertsonen gorputza, hazkuntzaren beste fase batera pasatzen da.

Erorketa prozesua traumatikoa izan daiteke. Gorputzaren atal batzuk askatzen hasten dira, gainera mingarria izan daiteke eta askotan odola ateratzen da erortzean. Prozesu horrek beldurra, antsietatea edo bestelako emozioak sortu ditzake. Hori dela eta, hainbat usadio eta pertsonaia asmatu egin dira hagin eta hortzen erorketaren inguruan, Mari Teiletako, Zaindi-Maindi, Perez sagutxoa, hortzetako maitagarria...

Gaur egun hortz bat erortzean haurrek opari bat jaso oi dute, askotan usadioa eta mistika guztia alde batera utziz eta oparian jarrita helburu bakarra. Usadio politikak ditugu Euskal Herrian, inolako oparirik ematen ez dutenak. Mari Teiletako adibidez, hortza edo hagina hartu eta zerura eramaten du, bertan izar bihurtzen delarik. Haurrek beraien izarrak topatu ahal dituzte hurrengo gauean.

Erorketa prozesua lagundu behar da, eta bakoitzak aukeratu dezala zelan egiten duen bide hori, baina, saia gaitzen usadioak oparrietatik aldentzen. Askotan usadioak pisua galtzen baitu eta oparian zentratzen baikara. Haurraren bidelagun izateko, haurraren emozioa entzun edo lagundu egin behar da eta horri erantzun, usadioek balio izaten dute bide-laguntza hori egiten. Opariek askotan ezkutatu egiten dituzte emozioak.

Eta lasai, zuhaitzetako hostoak udaberrian berriz hasten diren bezala, hortzak eta haginak ere hasten joaten dira, lehenengo erorketa horren ondoren


Bakoitzari berea

Ea asmatzen duzun zer jango duen euli bakoitzak.




Zu bai HAMALAU!

Azkar batean, goiko eta beheko irudien arteko aldeak aurkitu behar dituzu. 14 dira guztira.







DOMINOAN


Lauki zurietan falta diren irudiak marraztu, domino zati honek zentzua izan dezan.



OSPA! Armiarmak eulia harrapatu du sarean, baina oraindik ere badu aukera bat ihes egiteko. Lagundu euliarri zirrikituak aurkitzen eta saretik ateratzen.



SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Melbpal

Lander Atxa


JAIOTERRIA
LAUDIO (1999)

BIZILEKUA
MELBOURNE (AUSTRALIA)

BIDAIAREN XEDEA
WORKING HOLIDAY VISA BATEKIN IBILI DA HERRIALDEA
EZAGUTZEN ETA LAN EGITEN.



AUSTRALIA



DESKRIBAPENA

Ozeania hego-mendebaldeko estatu burujabea da, munduko herrialderik zabalenetan zazpigarrena. Australiako biztanleen gehiengoa etorkin europarren ondorengo da. Lehen Mundu Gerraren ondoren, biztanlegoa laukoiztu egin zen, immigrazio politika handinahi baten ondorioz.

AZALERA

7.692.024 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

26,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Australiako ingelesa eta Auslana dira ofizialak.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioa, Laudio, Araba, 01400
Telefonoa: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

“Fama handia hartu du Australiak, lan eskaintza eta bizimodua direla eta”

Australian igaro duzu azken urtea; nola iritsi zara bertara?

Unibertsitatea bukatu ostean bizi nahi nuen esperientzia zen. Aita eta ama bertan egon ziren duela hainbat urte. Asko pentsatu ostean eta gurasoan animoekin, Australiara joateko erabakia hartu nuen.

Zer zaude egiten bertan zehazki?

Working Holiday bisa batekin egon naiz Australian. Bisa honek herrialdea ezagutzeko eta lan egiteko aukera ematen dizu gutxienez urtebetez. Berrizteko aukera dago baina lan espezifiko egin behar da hiru hilabetez Australiako eremu konkretu batzuetan. Sei hilabetez Melbourneko Marriott Hotelean lanean egon naiz. Melbourneara azaroan heldu nintzen. Lehenengo bi hilabeteak aita eta amaren lagun batzuen alaben etxean eman nituen. Bi

hilabete horietan ingeles eskola batean ikasten egon nintzen, lagunak egiteko eta hiria ezagutzeko aukera oso ona izan zen.

Ingelesklaseak bukatuta, eskola utzi eta epe laburreko lan bat aurkitu nuen jatetxe batean. Lanak eskolan ezagutu nuen gelakide batekin pisu bat alokatzeko aukera eman zidan.

Lanean nengoela lan bila jarraitu nuen eta azkenean otsailan hoteletik deitu ninduten sei hilabete kontratua eskainiz. Izan ere, Working Holiday bisarekin ezin duzu toki berdinean sei hilabete baino gehiago lan egin.

Australiako zein lekutan zaude? Nolako da bertako egoera soziala?

Melbourne hirian bederatzi hilabete igaro ditut. Sydneyrekin batera Australiako hiri famatuen delako esango nuke. Hiri herraldia da, Euskal Herriaren bikoi-

tza dela esan daiteke, gutxi gorabehera bost milioiko biztanle ditu hiriak.

Oso hiri internazionala dela esango nuke, mundu osoko herrialde desberdinetako jendea ezagutu ahal duzu, bizitza eta istorio desberdinekin.

Egoera soziala finkoa da, bizi kalitate aproposa aurkitu ahal duzu. Lan egoera nahiko ona da orokorrean, fama handia hartu du Australiak, lan eskaintza eta bizimodua direla eta.

Beharbada heldu berriak garenak lan aldetik dena erraza izango dela pentsatu ahal dugu baina pixkat konplexua bihurtu daiteke hasiera batean. Izan ere, geroz eta jende gehiago dago nik bizi izan dudana Working Holiday bisa esperientzia berdina bizitzen, ikasle bisa asko onartzen dituen herrialdea ere bada.

Hala ere, zorte pixka batekin berehala aurkitzen duzu gustura


zauden lantoki bat. Ordu kopuruak eta ordutegiak beste kontu bat dira [barreak].

Hiria oso bizia da, denbora libererako eskaintza anitzak ditu. Astero ekitaldi desberdinak aurkitu ahal dituzu: jaialdiak, kontzertuak, museoak, kirol eskaintzak: anitzak, merkatuak...

Herrialde erraldoia da Australia, bertako zenbat toki bisitatzeko aukera zian duzu?

Melbourne ondo ezagututa, lan kontratua bukatu ostean bi hilabetez bidaiatzen egon naiz Laudiora bueltatu baino lehen. Hilabete batez Sydney eta herrialdearen iparraldeko tokiak bisitatu ditut. Cairns, Gold Coast eta Townsvillean zonaldeetan egon naiz. Gehien gustatu zaidan toki Cairns izan daiteke. Aukera anitzak ditu eta bizimodu lasaia, herri bateko bizitzarekin konparatu daiteke, nahiz eta hiria izan.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA